



Mikel IRIZAR

Elkarlana da toki komunikabideek aurrera segitzeko giltza → 3

Herriko bestak

Berroeta / Almandoz → 30

ETXALAR → 13

Txistulari Eguna ospatuko da maiatzaren 18an

DONEZTEBE → 18

Gazte Eguna antolatu du Burrenbak larunbaterako

LEITZA → 26

XXXVI. Kultur Aroan murgildua dago herria

BAZTAN → 28

Musika Eskolaren 25. urteurreneko kontzertua



Imanol ESNAOLA | Gaindegiako koordinatzailea

«Enplegua edo babes sozialaren alde egiten dugun bezala bat egin beharko genuke gure geografia osoa biziberritzearen alde»

Jendea herrietan atxikitzeko estrategiak behar dira → ERREPORTAJEA 4-5

Gaindegiak (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) berriki ezagutzera eman duen ikerketa baten arabera, Euskal Herriko 49 udalerrri desagertzeaz egon daitezke.

Epe ertainean desagertzeko arriskuan daudenen artean dago Ezkurra, eta epe luzeagoan Urroz eta Arano. Egoerari gain hartzeko, «badago zer egin eta zertan hobetu» dio Imanol Esnaolak.

ERATSUN → 21

Malerrekako Eguna aurten Eratsunen ospatuko da, maiatzaren 25ean

Iaz Zubietan izandako arrakasta errepikatze-ko asmoz, egun osoko gitaraua prest dute.

ZOKKETAK → 44



Hilabete batez Belateko gainetik

Apirilaren 29an mendia erori zenetik berriz ireki arte hilabetea joanen dela diote teknikariek. 7.000 ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira egunero, horietatik 2.100 inguru kamioiak.



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58 telefonora



euskalerrriairratia **fm91.4**

#ZuenBaimenarekin

Nafarroako Gobernuaren
debekuaren aurrean
emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerrriairratia.com
00 34 948 17 01 51

Ez dira garai hoberenak euskarazko tokiko hedabideentzat, baina larre motzean ibiltzen ohituta daude. Sakabanatuta eta bakarkako lanean segi ordez, elkarlanean topatu dute

egoera aldatzeko giltza. Horretarako sortu zen duela urtebete inguru Tokikom, Euskarazko Toki Komunikabideen Elkarteak. Hogei ziren hasieran eta hogeita hamar

hedabide biltzen ditu dagoeneko, Ttipi-Ttapa barne. Gizartean beren lekua aldarrikatzen dute; oztopoen gainetik, euskaraz eta hurbileko informazioa eskainiz segi nahi dutelako.

Mikel IRIZAR | Tokikomeko lehendakaria

«Tokiko hedabideak elkarlanean arituta, egoera iraultzeko gai izango gara»

E. IRAOLA

Zer da Tokikom?

Euskal Herriko toki komunikabideak bateratzeko helburua duen proiektua da. Zerbitzu komunak elkarrekin kudeatzea da asmoetako bat eta sektoreari eta erakundeei begirako lankidetzat bateratu bat egitea. Tokikomek duen beste funtzio garrantzitsua, tokiko hedabideek emango ditugun etorkizuneko urratsetan eragile indartsu eta aktiboa izatea da. Osagai guztiak integratzea da helburua, bakarka bidea egiteak baino indar gehiago baitu elkarrekin egindako bideak. **Zein da tokiko hedabideen egoera?**

Toki komunikabideek hiru finantziario iturri izan ditugu historikoki: harpidedunak, merkatua eta instituzioetatik lortutako diru laguntzak. Gaur egun hirurak daude krisian. Merkatua apaldu egin da, irakurleek ere nahikoa lan dute eta Nafarroan diru laguntzen murrizketa erabatekoa izan da. Egoeraren aurrean ordea, erreakzionatu egin dugu. Lankidetzarako bidea zabaldu digu krisiak eta horixe da egoera gainditzeko modurik eraginkorrena. Arriskuaz ahaztu gabe, aukera handi baten aurrean gaudela pentsatu behar dugu. Elkarlanaren



ARGAZKIA: GOIENA

Mikel Irizar Tokikomeko lehendakaria.

indarraz gain, kontuan izan behar da beste hedabide asko iristen ez diren tokietara iristen garela. Gainera, tokiko informazioa eta euskaraz sortzeak, guk zabalitzen dugun mezuari balio erantsia ematen dio.

Teknologia berriekin paper dute?

Garapen teknologikoak aukerak ematen dizkigu tikiak izan eta baliabidez ahul gauden komunikabideoi. Teknologia ahalbidetu du, behetik gora garatutako proiektuak egon ahal izatea. 90. hamarkadan toki komunikazioa euskaraz hutsean garatzea lortu zenean, euskarak

EGOERA


«Merkatua apaldu egin da, irakurleek ere nahikoa lan dute eta Nafarroako kasuan, laguntzen murrizketa erabatekoa izan da. Egoeraren aurrean ordea, erreakzionatu egin dugu. Lankidetzarako bidea zabaldu digu krisiak eta horixe da egoera gainditzeko modurik eraginkorrena. Arriskuaz ahaztu gabe, aukera handi baten aurrean gaudela pentsatu behar dugu.»

urrezko domina bat irabazi zuen. Neurri handi batean teknologia ematen zizkigun aukera guztiak erabiltzeko modua bilatu zelako izan zen. Oraingo erronkan ere funtsezkoa izango da. Herritarren parte hartzea bultzatzeko bitarteko nagusiak izango dira; irakurlea, irakurle pasiboa izan beharrean, berri emaila izateko tresnak. Irakurleek emandako informazio hori hedabideek beraien jardunean integratzea izango da hurrengo pausoa. Askotan dut teknologian, helburu sozialetarako erabiltzen direnean.

Nola iritsi hartzaileengana?

Kontsumitzeko ohiturak aldatzen ari dira eta guk ere eraldatu egin behar dugu. Etorkizunera begira, gazteek informazioa zein euskarri eta bideetatik hartzen duten ikusi behar dugu. Baina ezin dugu ahaztu gure irakurle asko ez direla gazte gazteak. Bakoi-tzaren premiak asetzeko modua aurkitu behar dugu, bi ereduentzat ari garela lanean eta biak beharrezkoak ditugulako. Horixe da Tokiko hedabideen ezaugarrietako bat, irakurle esparru zabal batera iristeko gaitasuna. **Zein da etorkizuneko erronka nagusia?**

Hartzaileengana hurbiltzeko eman beharreko pauso horiekin asmatzea. Teknologia ematen dituen aukerak baliatu behar ditugu eta integrazioa bilatu. Hedabideek gizartean betetzen dugun papera zein den erakustea beharrezkoa da eta hartzaileengana babesa garrantzitsua dela ikustaraztea. Nik animo eta esperantza puntu bat zabaldu nahiko nuke. Euskarak ematen digu indarra elkarlanean aritu eta aurrera egiteko, euskarazko tokiko hedabide bakoitzarekin euskarak irabazten baitu. Elkarlanean, egoera iraultzeko gai izango gara.



GIZARTEA → GAINDEGIAREN IKERKETA

Herri ttikien biziraupena ziurtatzeko neurriak hartu behar direla adierazi du Gaindegiak

1999tik honat populazioak izan duen joera ikertu du eta hainbat zonalde arrisku larrian daudela ikusi du

Gaur egungo martxarekin eta duten biztanleria ttikia eta zahartua izanik, hurrengo urteetan Euskal Herriko 49 udalerrri desagertzeaz egon daitezkeela ondorioztatu du Gaindegiak.

Horietako 21 herri luze gabe desagertzeko arriskua izanen lukete, eta tartean dago Ezkurra. Epe luzeagoan, kopuru horri bertze 18 batuko litzaieke, hala nola, Urroz eta Arano.

G. PIKABEA

Mila biztanletik beherragoko EHko 49 udalerrri desagertzeko arriskuan daudela ohartarazi du Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako beha-

tegiak (www.infobasque.com). 1999tik honat populazioak izan duen beherakada, bizitza proiektua aitzinera eramateko adinean dauden biztanleriaren ihesaldia –batez ere emakumeak–,

zahartze-indize altua eta amatasun indize baxuak dira, Gaindegiaren azken txostenaren arabera, galtzeaz egon daitezkeen udalerrien ezaugarriak. Eta tartean badira eskualdeko zenbait herri.

«Oro har, herri ttiki gehienak, demagun 200 biztanletik beherakoak, egoera kritikoan daude». Halaxe dio Imanol Esnaola Gaindegiako koordinatzaileak. Gaineratu digunez, «Malerrekan, erraterako, egoera kritikoan dauden udalerrien kontzentrazio handia dago. Hurrengo urteetan zerrenda horretan herri gehiago sartuko ote diren galdetu beharko genioke geure buruari. Hau da, zer egin behar den inguruko herriek bide hori ez hartzeko eta bide horretan daudenek ibilbide berri bat hartzeko».

EZKURRA GORRIZ

Eskualdeari erreparatuz, **Ezkurra** epe ertainean desagertzeko arriskuan dagoela ondorioztatu du ikerketak: «ezagun demografiko beldurgarriak ditu, biztanleriaren %33a galdu du 1999tik honat, 840ko zahartze indizea du (65 urtetik gorako herritarren proportzioa 0-14 urte bitarteko biztanleko), amatasun indize ttikia (8,4)

eta biztanleen iraute maila negatiboa, batez ere emakumeen artean. Oinarri horrekin ezin dio zahartzeko prozesuari gain hartu», dio Esnaolak. **Arano** eta **Urroz**ek «bide horretan sartzeko arrisku handia dutela» erran digu: «baina herri horietan ere badago zer-bait egiteko gogoia, beraz, ezin da heriotza iragarri, arriskua baizik».

Bertzetik, **Arantzeta**, **Areso**, **Beintza-Labaien**, **Eratsun**, **Goizueta**, **Saldias** eta **Zubietak** «ezagun demografiko kritikoak adierazten dituztelako kezkatzekoak direla» azaldu digu Imanol Esnaolak, baina bere hitzetan, «arazoa ez da demografikoa bakarrik, herri hauek biztanleriari eusteko moduko estrategiak behar dituzte. Estrategia falta da arazoa, arazoak ez baitira berez konpontzen».

Izan ere, Esnaolak aipatu digunez, gure herriek gabeziak dituzte: «lan gutti edo arlo guttitan, garraio azpiegitura eskasak, oinarritzko

LURRALDE DISEINUA

«Administrazioaren lurralde diseinuak eragiten du zonalde batzuek egungo bizi-moduari eusteko erakargarriak izatea eta bertze batzuk ez»

ELKARLANA

«Enplegua edo babes sozialaren alde bat egiten dugun bezala bat egin behar genuke gure geografia osoa biziberritzearen alde»

GURE HERRIAK

«Ezkurak ezaugarri demografiko beldur-garriak ditu. Oinarri horrekin ezin dio zahartze prozesuari gain hartu. Arano eta Urrozek bide horretan sartzeko arrisku handia dute»

Imanol ESNAOLA
Gaindegiako koordinatzailea

zerbitzuak urruti... Hori guztia batera etortzen denean edo lurraldean ez badira modu orekatuan garatzen honelakoak gertatzen dira. Lan bila dabilenak lana dagoen lekura jotzen du. Administrazioak herri-tiki hauetako biztanleriak bere lurralde lotuta jarrai dezan behar den ahalegina egiten ez badu, kontrako eragiten du. Administrazioaren lurralde diseinuak eragiten du zonalde batzuek egungo bizi-moduari eusteko erakargarriak izatea eta bertze batzuk ez». Gaindegiakoak oroitarazi du «lruña eta kostaldeko hiriak hurbil izanda, erraza gertatu dela bizilekua aldatzea. Orain errepide berriekin behar bada ez da halakorik gertatuko, baina hamarkada luzez ekialdeko nafarrek euskal hiriburuen inguruko herrietara jo dute. Ez dugu ahortzi behar mendi

nekazaritzak Europako nekazaritza politiketan jasan duen bazterketa. Nekazal eremuak birritan baztertuak izan dira, ekonomikoki eta zerbitzuen planeamenduan».

ONDORIO NAGUSIA

Lan honekin Euskal Herrian hainbat zonalde arrisku larrian daudela jakinarazi du Gaindegiak, «egungo martxarekin eta duten biztanleria tiki eta zahartua izanik hurrengo urteetan 49 udalerri desagertu daitezkeela». Ondorio nagusia, ordea, haratago doa: «gure lurraldean euskal

identitateari, mendiari eta laborantziari lotutako eremu zabalak daude, administrazio zenbaitek bazterturik dituztenak. Bazterketa horren ondorioz, desagertzeko bidean daude». Gisa berean, Euskal Herriaren gure geografia ekonomiko eta soziala aztertze ohitura: «aberastasun handia sortzen dugu eta gure gizarteak garapen maila handia du hiri gutti batzuetan kontzentratuta». Bere irudiko, «bizi dugun lurralde zatiketak ez dugu gure geografia ekonomiko eta soziala ulertzen

uzten, batez ere administrazio zentralisten menpe dauden eskualdeok bizi duzuen bazterketa».

Egoerailuna bada ere, «itxaropentsu» egoteko deia egin du: «badago zeregin eta zertan hobetu. Hor daude udalak, hainbat herritar prestu, Mankomunitateak, Cerderna-Garalur... Oinarria bada aitzinera ilusioz egiteko. Hortik aitzinera, jarduera ekonomikoak dibertsifikazioaren bidetik berpiztu, kohesio soziala bermatu, zerbitzuak eskuragarri jarri... Laborantza garrantzitsua izan da, baina ez da aski.

Bizitzaren esparru guztiak garatu behar dira eroso eta gustura bizitzeko». Elkarlana ere nabarmendu du: «enplegua edo babes sozialaren alde bat egiten dugun bezala bat egin behar genuke gure geografia osoa biziberritzearen alde Euskal Herrian. Horretarako iritzijoera indartsu bat eragin behar da, izen abizenak, aurpegiak jarri behar zaizkio problematika honi, batez ere, ilusio eta proposamenei. Herri batzuk desagertuko dira, baina lana txukun egingez, bertze aunitzek iraunen dute».

UDALERRIA	Biztanleria			Zahartze indizea	Bizitza proiektua garatzeko biztanleriaren iraute tasa		Amatasun indizea
	Orotara	Hazkundera 1999/2012	Hazkundera 2006/2012		Orotara 2006/2012	Emakumeak 2006/2012	
ARANO	121	-15,4	-14,2	227,27	-13,2	-16,1	19,0
ARANTZA	645	-5,0	-1,8	177,78	1,1	3,9	27,8
ARESO	276	-10,1	-5,8	172,22	-10,8	-15,9	26,4
BAZTAN	8.035	3,8	2,7	142,58	3,8	6,6	26,1
BEINTZA-LAB.	242	-18,2	-6,2	387,50	-0,9	10,0	10,6
BERA	3.798	8,2	1,9	106,40	-1,0	0,4	25,2
BERTIZARANA	628	-12,7	-7,1	134,94	-5,5	-3,0	28,5
DONAMARIA	436	15,0	5,3	73,86	1,8	4,5	33,7
DONEZTEBE	1.694	23,8	13,4	84,39	14,8	10,4	25,5
ELGORRIAGA	205	-23,5	-9,3	121,88	-9,7	-9,6	12,2
ERATSUN	160	-10,6	-7,0	716,67	-7,2	3,8	14,8
ETXALAR	818	3,4	2,4	125,00	9,7	4,5	26,8
EZKURRA	164	-33,1	-15,0	840,00	-7,6	-15,6	9,5
GOIZUETA	758	-16,3	-6,3	248,65	-6,0	-5,9	16,2
IGANTZI	634	6,9	4,4	143,43	9,6	8,5	21,8
ITUREN	518	11,4	7,7	109,88	8,2	4,2	26,6
LEITZA	2.916	-2,9	0,7	144,78	-2,1	-3,3	19,7
LESAKA	2.807	2,6	2,6	127,10	1,3	2,8	26,1
OIZ	155	4,0	3,3	180,00	1,4	-3,8	19,2
SALDIAS	118	-22,9	-1,7	1.000,0	2,0	-4,5	9,5
SARA*	2.434	14,4	7,2	126,34	7,8	7,0	29,6
SENPERE*	5.550	28,9	8,7	74,92	10,8	14,9	27,3
SUNBILLA	665	-1,8	0,5	191,55	2,4	-3,6	23,1
URDAZUBI	378	-6,0	5,3	237,5	10,7	5,7	15,7
URROZ	180	-15,5	-1,1	252,94	-4,1	-3,1	15,2
ZUBIETA	295	-6,1	-0,7	147,83	-2,3	8,0	30,8
ZUGARRAMURDI	243	2,5	9,0	126,34	13,1	12,2	12,7

- Desagertzeko arriskuan epe ertainean.
- Desagertzeko arriskuan epe luzean.
- Metabolismo demografiko arrisksudunak.

*Zahartze indizeak 65 urte eta nagusiagoa den biztanle kopurua aditzera ematen du 0 eta 14 urte bitarteko ehun biztanleko.
 *Amatasun indizeak 0 eta 4 urte arteko haur kopurua adierazten du ama izateko adinean (15-49 urte) dagoen ehun emakumezko.
 *Bizitza-proiektua garatzeko adinean dagoen biztanleria gisa erreferentziako urtean (2006) 20 eta 49 urte bitarteko biztanleak aintzat hartu dira.
 *Sara eta Senpereko azken datuak 2009ra bitartekoak dira eta konparaketak 1999-2009 eta 2006-2009 urteetakoak dira.



Nire txanda
Luis GARDE

Denboraren tunela

Urtero bezala, guretzako *denboraren tunela* den Belateko tunelen itxierak hamabortz urte gibelera eramaten gaitu. Kasik urtero bezala, uda heldu eta portutik pasatu beharra. Gogaikarria izan arren, ez da hau geure bizitzetan ezarri den denboraren tunel bakarra. Markagailua zeroan jarri digute eta gure eskubide sozial eta urte pare batean eskubide sozial eta ekonomiko aunitz hogeita hamar urte gibelera joan zaizkigu.

«Nahiago dut hilabete batez negar egitea bizitza osoan baino» esan berri du haurdun geratu ondoren abortatzea aukeratu duen Alikanteko neska batek. Fetua ez zen bideragarria, malformazio oso larriak baitzuten. Gallardon ministroa prestatzen ari den lege berriarekin, hori ez da posible izanen osasun sistema publikoan. Frankismoan bezala, dirua duena Londresera ingelera perfektionatzera, eta ez duena...

«Markagailua zeroan jarri digute eta gure eskubide sozial eta ekonomiko aunitz 30 urte gibelera joan zaizkigu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Feixbuk eta Tuiterez haratago

Jakintsu batek dioena zuzendu ezazu eta oraindik jakintsuagoa egiten duzu; ergel batek dioena zuzendu eta kontrario bat irabaziko duzu. Sare sozialetan bilin-bolo dabilizan milaka esaldi *filosofikoetako* bat. Iraultzaile guttiago Facebook-en eta lan gehiago karrikan. Halatsu dio bertze batek. Pentsamendurako plaza zabala den neurrian ekintzarako tokia kentzen ote du sareak?

Nabarmentzekoak



Roberto LANZ LOPEZ
Lehenbiziko izokina

36 urteko arrantzale orkoiendarrak atera zuen Bidasotik 'Lehenbiziko' izokina maizatzen 1ean. 4,260 kilo eta 74 cm.ko eme basatia 1.700 eurotan saldu zuen.



Ion ZEBERIO
Denboraldiko lehen garaipena

Nafarroako itzulian senior mailako sailkapen nagusia irabazi ondotik, Transbidasoako txirindulari elizondarrak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Burgozen maizatzen 5ean.



Miguel Mari IPARRAGIRRE
Akordeoi irakasle omendua

Baztango Musika Eskolaren 25. urteurrenaren kariatara, Elizondoko soinulariek kontzertua eskaini zuten maizatzen 5ean eta omenaldia egin zioten denbora horretan irakasle denari.

Atzera begira → 2003.05.22 / TTIPI-TTAPA 350 zbk.



Mari Jose Brust, Irurritako marmelada-egilearekin

«Marmelada saltzea zaila da, hemen presaka eta gaizki gosaltzen dugu». Halaxe aipatu zigun duela hamar urte Mari Jose Brust iruritarak. Halere, berak marmelada berezi aunitz egiten zituen: fruta gorriena, muxikarena, marrubia mentarekin, abrikota laranja likorearekin, udarea giltxaurra eta ronarekin, muxika nahasiak, gerezia... «Mentazko txikleka ahoan nuela marrubia jan nuen eta hara! zein gusto goxoa! Frexkura ematen zidan eta marmelada sortu nuen» aipatu zigun. Etxerako eta lagunendako beti eginga zuen Mari Josek, baina lanbidetzat zortzi urte lehenago hartu zuen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

EH Palestina Eguna

Xabi TORRES

500 km luze eta 9 metro altuerako harresia, ugaltzen doazen 250 kolonia oldarkor, eguneroko erahilketa eta atxiloketak, etxe-bota-tzeak, lege-sistema baztertzailak, bonbek eta humillazioek, Israelen apartheid politika ezaugarritzen dute. Poliki baina etengabe, arabiarrek tantaka odolustu nahi ditu, desiotako lurraldea haietaz garbitu. Hegoafrikan 1992 arte, txuriek beltze-kin egiten zuten bezala, gaur. Guzi honi, Gaza eta Cisjordaniatik kanpo errefuxatuak direnen drama gehitu behar zaio. Eskubide zibilik gabe, garaituak, etsituak... "irabazlearen" irrifar krudela dute ordainetan.

Adel Abou Salem, Líbanon jaio zen 1970 urtean, Saida hiriaren ondoko Ein El-Hilweh errefuxatu eremuan. Bere gurasoak, Mohamed eta Amine, Palestina iparraldean jaio ziren, Nazaret ondoko Saffourieh herrian, 1948tik Israel proiektuak sarraskitua eta okupatua. Kuban ikasi zuen Injeniaritza Mekanikoa, herrialde honek aberri lagunei eskeitzen dizkien beka unibertsitarioei esker. Adelek, Líbanon duten bizimoduaren berri emanen eta Siriako desplazatuen lekukotasunak helaraziko dizkigu.

James Petras Bostonen jaio zen 1937an. Inperialismoaren eta latinoamerikar gatazken inguruko ikerketengatik ezaguna den soziologo estatubatuarra da. Salvador

«Poliki baina etengabe, arabiarrek tantaka odolustu nahi ditu, desiotako lurraldea haietaz garbitu. Hegoafrikan 1992 arte, txuriek beltze-kin egiten zuten bezala, gaur»

Allenderen gobernuko laguntzaile izan zen. Irakasle izan da Binghamton (New York), Pensilvania eta Saint Mary's Universityn, Canada.

Bertzeak bertze José Saramago eta Noam Chomskyrekin batera, "Palestina Existe" liburua argitaratu zuen 2002an.

Estatu Batuen interes inperialistak eta proiektu sionista nola uztartzen diren irakatsiko digu.

Gure galderei gustora erantzun eta mundua pixka bat gehiago ulertzen lagunduko digute.

Maiatzaren 18an, solasaldiaz gainera, janari eta dantza palestinarrak dastatzeko izanen dira, denen sakeletarako zikiroa eta Fermin Balentziaren historia musikatua, mural margotzea eta akitzeko Palestinian Unit (Gaza) Hip-Hop taldea, La Jodedera (EH-Kuba), Kasu (Iruñea) eta Tirry&Tery (Baztan) kontzertuan izanen ditugu. Garrantzitsuena dena den, egun hontara hurbiltzeak pausu bat gehi emanaraziko digula da, Israeli Nazioarteko Lege-diak eta Giza Eskubideak errespetarazteko bidean. Etorkizuna gaurtik hasten da pausoz-pauso, elkartasuna da bidea, Elizondon ikusiko gara!

Bost mila eta bostehun

Arrate ILLARO ETXEBERRIA (Euskaltzaleen Topagunea)

Astean behin, auzoko taberna batean sartu eta bost laguneko taldetxoak egiten da bertan. Ez dute hutsik egiten, eta ez dago zalantzarik: berbalagunak dira. Belarria jarri nuen lehen aldian ohar-tu nintzen.

Freskagarri bat eskatu, eta ondoan esertzen naiz bazuetan. Asteburuari buruz hitz egiten dute, gizarte arazoei buruz, Athletic-i buruz... hitz egitea baita euren helburu nagusia, euskaraz hitz egitea. Estimatzekoa da egiten duten esfortzua, gozagarria daukaten ilusioa, eta azpimarratzekoa den konpromisioa.

Boskote hori, ordea, ez da kasu isolatu bat. Urte hasierarekin batera, datu bilketa egin dugu Euskaltzaleen Topagunean, eta hara! 5.500 mintzalagun daude Euskal Herri osoan. 5.500 herritar, euskaldunon komunitateko kide aktibo izateko prest. Nork esango ziren Donostiako Bagera euskaltzaleen elkarteko kideei, duela 20 urte martxan jarri zuten egitasmo xume hori hainbesteraino hedatuko zenik?

Euskaraz aritzeko ohitura dutenak, ohiturarik ez dutenekin elkartzen ditu mintzapraktika programak. Euskaldunen elkarte mugimenduak, euskaltegiek eta zenbait udalek apustu sendoa egin zuten duela hainbat urte, eta ordutik etengabe ari dira mintzalagun taldeak bikoizten. Iruñerrian, esaterako, 550 mintzakide batzen dira; eta Gasteizen, beste 640. Erraz esaten ditugu zerbakiak, baina irudikatuz gero, harrigarria irudituko zaio bati baino gehiagori. Ni behintzat harrিতuta gelditu nintzen Topagunean lanean hasi eta dimentsioa ezagutu nuenean.

Mintzalagunek euskarara hurbiltzeko egiten duten ahalegina goraiatzen dugu askotan, baina zer egin dezakegu freskagarria hartuta inguruan esertzen garen euskaldunok? Erronka handi bat daukagu. Euskaldunon elkarteek, bertako bazkideek zein euskaldun guztiok, talde txikietan sortzen ari den dinamika hori zabaltzeko eginkizuna daukagula uste dugu Topagunean. Mintzalagunen eginahala gizarteratu behar dugu. Kalera atera ginen, ziren, baina orain administratzailea, dendetara, bulegoetara zein merkatura atera behar dugu. Astero ordubetez egiten duten ahalegina egunerokora zabaldu behar dugu, hizkuntza ohituretan eragin, eta euskararentzako eta euskaldunontzako gune berriak irabazi behar ditugu. Algortako tabernan zein Bergarako parkean biltzen diren boskote horien lana islatu dezagun.

Ezin dugu ardura guztia euskaltegien esku utzi, hauek lana ederto eginda ere. Herritarra komunitatean parte hartzeko gogoz dago, eta euskaldun guztion funtzioa da kide berriei atek zabaltzea. Mintzalagunen taldeek ez dute zentzurik, talde horietatik kanpo euskararen erabilera bultzatzen ez badugu. Irabazi ditzagun gune berriak, eta lagundu diezaiegun gurekin batera aritu nahi duten horiei, euskaldunon komunitateak kide berriak izan ditzan.

Irakurleak mintzo

Mutildantzak
plazetanAitziber ZAPIAIN (Plazara
Dantzara Herri Ekimena)

Baztango kultura, ohiturak, bestak, dantzak... maite ditugulako. Ondare hori indartu, hedatu, sozializatu... nahi dugulako. Gauzak nahasten ari direla ikusita, zenbait informazio eman eta aferak argitu nahi ditugulako idatzi dugu eskutitz hau.

Ez da gaur egungo afera bazterrek nahastearena, lehenago ere izan dira, folklorea tar-teko, bazterrek nahastejoera franko Baztanen; agote jendeak dantzatu nahi izan duenean (XIX. mendea artio), gazte zenbaitek dantza lotua aldarrikatu zutenean (XX. mendeko 50eko hamarkadan bereziki), txistulariak garai zaharretako (beraz ez orduko modako) ordezkariak izan zirenean eta harrika edota zitzuka ere

igorri izan zituztenean (60eko hamarkada) ...

Baztanen, Euskal Herri osoan barrena gertatzen ari den modu berean, hondar 20 urte hauetan emakumeen parte hartzea nabarmena izan da Mutil Dantzetan. Kalapita eta zalaparta guti batzuk salbu, Baztango herria denetako bestetan plazan dantzatu izan dute, bai eta zikiro jate bazkal ondorenetan, Baztandarraren Biltzarra egunean, herri ekimen ezberdinek antolatutako jaialdietan, etab. Herri hauetako batzuetan gainera, kultur elkarten lanaren eta bertako herritarren babesari esker berreskuratatu egin da Mutil Dantzak ikasi eta dantza-tzeko ohitura.

Berriki berriz, Baztango Mutildantzarien Taldea delako a sortu da. Kezkagarria da Mutil Dantzak indartzeko asmoz sortu eta, aldez, baztandarraren %50ari dantza-tzeko eskubidea ukatzen zaiola ikustea. Nola liteke modu horretara deus ere indartzea?

Gainera, gu guztiona den plazako dantza herrikoia ikuskizun bihurtu nahi dute, guti batzuk dantzan, bertze denak begira. Denon aberastanaren pribatizazioa atzerapauso bat da.

Baztango herrietako emakume eta gizonek hondar urte hauetan puxke-biltze eta inautek, zikiro jate eta herri bazkariak, kinto bestak ... elkarrekin naturaltasun osoz ospatzen badituzte, aitzineko belaunaldietako herritarrei esker izan da, pixkanaka-pixkanaka gaizki begiratu, txutxumutxu eta zenbaitetan aditutako irainei ere aitzin egin dietelako. Gaur guri dago kigu Baztan hobe baten alde eta gure kulturaren alde ekarpena egitea, eman dezagun beraz bertze aitzinera pausu bat; museo batean baileude, ikusteko Mutil Dantzak proposatzen dizkigutenei, denontzako, irekiak eta bizi bizirik dauden Mutil Dantzak nahiago ditugula ihardetsi. DANTZARA, PLAZARA!

Apaltasuna

Xanti BEGIRISTAIN
MADOTZ (Itzulpena)

Aitarekin nindoan oinez bihurgune batean gelditu zenean, eta isiltasun motz baten ondoren, zera galdetu zidan:

– Txorien txorrotxioez gain, entzuten al duk besterik?

Belarriak zorrotzu nituen eta segundo batzuk igarota, hauxe erantzun nion:

– Gurditxo baten hotsa entzuten ari naiz...

– Hori duk-eta! –esan zuen aitak –gurditxo hutsa duk.

Orduan aitari zera galdetu nion:

– Nola dakizu gurditxoa hutsik dagoela, oraindik ez baldin badugu ikusten?

Orduan aitak honako hauxe esan zuen:

– Oso erraza duk jakitea noiz dagoen gurditxo bat hutsik: zaratarengatik. Zenbat eta hutsago egon gurditxoa, orduan eta

handiagoa duk egiten duen soinua.

Gizon heldua egin nintzen eta gaur egun, pertsona bat sumatzen dudanean, gehiegi hitz egiten duena, denen hizketa eten egiten duena, ezegokia dena, daukanaz harro agertzen dena, oso ahaltsua sentitzen dena eta jendea-ri goitik begiratzen dioena, orduan aitaren ahotza entzuten ari naizela iruditzen zait, zera dioena: Gurditxoa zenbat eta hutsago egon, orduan eta handiagoa duk egiten duen zarata.

Apaltasuna zerean dantz, gure bertuteak isilik eduki eta bertute horiek besteei aurkitzen uztean.

Eta gogora ezazue badaudela pertsonak hain behartsuak direnak, non dirua besterik ez baitute.

Inor ez dago hutsago, bere buruaz soilik beterrit dagoena baino.

Izan gaitezen euri lasai eta barea, zain sakone-taraino iristen dena, isiltasunean, elikatuz.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

HILABETE HONETAKO ESKAINTZA 93€

250 Orri
Koloretan alde batetik
90g offset DIN A4
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Prentsatik bildutakoak



«[Sendabelarren] jakintza hori zuretzat gordetzea oker bat iruditzen zait. Inori kontatu ez, eta hiltzen bazara, hura galdu egiten da. Onak diren gauzak erakutsi eta hedatu egin behar dira, jendeak ikas ditzan. Nire pentsaera hori da, eta nire amarena ere hori zen, dakizuna erakustea, eta galdetzen duenari kontatzea».

Josune MAKIBAR
Sendabelar erabiltzailea
BERRIA 2013.04.27



«Etxeak leitzarren esku egon behar du, Leitzako herriak nahi duena egiteko. Dena den, auzi honetan azken erabakia Nafarroako Gobernuak du. Borondate kontua da. Orain du aukera kontratu hori hausteko eta herriaren borondatea asetzeko. Gobernuari bilera eskatu diogu, gure asmoak azaltzeko».

Iñaki ZABALETA
Maxurrenea Herritzat
NAF. HITZA 2013.05.03

11 galdera labur

Herriko helduena... zer sentitzen da?

Satisfakzio handia urteekin zahartu naizela.

Zure bizitzako pozik haundiena?

Nere umeak Ameriketatik bueltatu eta ongi zeudela ikusi nuenean.

Eta tristurik haundiena?

Matte duzun jendia hiltzen denean.

Zer iruditzen zaizu gaur egungo krisia?

Gauza tristia ez baitakigu noiz arte iraungo duen.

Gaztelu, Madril, Donamaria eta aspalditik Narbarten bizi zara... Nongoa zara?

Momentu hontan Narbartekua.

Hiria ala herria, zer nahiago bizitzeko?

Egia errateko herria, hiria ez dut matte.

Zer falta zaizu ikusteko mundu hontan?

Nere amatxik erraten zuen ailetuko zela egun bat, apezak sotarik gabe ibiliko zirela, ailetuko zela egun bat etxe guztietan telebista izanen zela, ailetuko zela egun bat emakumeak gizonen pare juanen zirela ostatura eta ailegatuko zela egun bat gizonak andreetatik eskapo arbolan gainera juanen zirela. Hoixe dut falta ikusteko..

Zenbat urte arte gustatuko litzazuke bizitzea?

Nahiko urte bizittu naiz, konten nago nere biziarekin.

Ama, amatxi eta aspalditik biramatxi. Zenbat birbiloba dituzu?

Kontua galdu dut, baino uste dut hamalau direla.

Itsasurik zure teilatuan?

Teilatu zahar guztietan izaten da itsasuren bat.

Bada zerurik?

Ez dut ikusi... baina sinistu nahi dut baietz.



Karmen LARRABURU GAZTANBIDE → Narbarteko xaharrena

elika e
Dietetika... elikadura

- Ahokutartza dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisi: ura, muskulu, gantz...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kolesterolia eta glukosa azterketak.

Iñaki Andueza Larra
Itzea, 6 behea - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

Karsuk®

Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

banukoak eta fitebada
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
jauzi lotu & erro
Tfno/Fax: 948 630 018
Kantillonberri 12 - BERA

BORTZIRIAK

EUSKARA BORTZIRIETAN → DATOZEN URTEOTARAKO LAN ILDOAK ZEHAZTEKO

Euskarari buruzko gogoeta prozesu arrakastatsua burutu da Bortzirietan

Bi lan saio egin dituzte, partehartze handiarekin eta ekainaren 7an aurkeztuko da emaitza

TTIPI-TTAPA

Joan den apirilaren 20an eta maiatzaren 4an Bortzirietan euskarak di-tuen erronkei buruz gogoeta egin zuten hainbat herritarrek. Gogoeta saioak hagitz jendetsuak izan ziren: lehenbizikoan euskararen egoera izan zuten aztergai, eta 80 lagunetik gora elkartu ziren. Bigarrengoan, berriz, etorkizunean lehentasunez landu beharreko lan ildoak eta egitasmoak izan zituzten hizpide 70



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehendabiko lan saioan euskarak Bortzirietan duen egoera aztertu zuten eta bigarren lan saioan etorkizunean lehentasunez landu beharreko lan ildoak izan zituzten hizpide.

lagunetik gora.

Guztira, 100 lagun baino gehiagok parte hartu dute gogoeta prozesu honetan, eta euren ekarpen eta iritziekin osatuko dute Bortzirietan euskararen plan estrategikoa. Euskara

mankomunitateak guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkie.

Gogoeta saioen dinamizazioaz Elhuyar Aholkularitza arduratu da, eta lan saioak biziak eta emankorrak izan dira. Parte hartzaileek

hagitz ongi baloratu dituzte erabilitako metodologia eta saioen dinamika.

Saioetan ateratako emaitzekin txostena idatziko du Elhuyarrek. Txosten horri ekarpenak eta zuzenketak egi-

EMAITZEN BERRI

Beran, ekainaren 7an aurkeztuko da gogoeta prozesuaren emaitza, arratsaldeko 7etan. Tokia ez da oraindik zehaztu

teko modua izanen da, eta horretarako kontraste talde bat osatuko da. Euskararen gogoeta prozesuaren emaitza edo plan estrategikoa ekainaren 7an aurkeztuko da, ortzirala, 19:00-etan, Beran (tokia zehaztu gabe dago). Datozen urteotan euskararen normalizazioan egin beharreko lana gidatzeko funtsezko tresna izanen dute aurreantzean euskara mankomunitateak eta euskalgintzak.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

OYÁ
EDERTASUN ZENTROA Legia 45-behea • BERA T. 948 631 005 • M. 698 499 192 • 698 499 204

MANIKURA ETA PEDIKURA TRADICIONALA + KOLOREA
ESKU ETA HANKEN TRATAMENDUAK gizon eta emakumeendako
AZAZKAL LANOUAK GEL ETA PORTZELANAREKIN
ESMALTATU IRAUNKORRA AURPEGI DEPILAZIOA
BEKAINEN DISEINUA (Tindatzea, Xixkurtzea, Leuntzea)
BETILEEN LUZAPENA
MAKILLAJEA (Ezkontzak, Ospakizunak...)

bp
GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA
Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
URTE OSOAN IREKIA
Zalain Industrialdea | BERA
948 630 249

ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK

UDALA → 400 EUROKO SARIA IRABAZLEARENTZAT

Bestetako kartel lehiaketara lanak aurkez daitezke

Maiatzaren 31n bukatuko da epea

TTIPI-TTAPA

Bestetako kartel lehiaketaren deialdia zabaldu du Kultur Batzordeak. Lanak maiatzaren 31ko 13:30ak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz eta irabazleak 400 euroko saria eskuratuko du. Kartelak, 70x50 cm.ko formatu bertikala izan behar du, Berako besta giroa islatuko du eta *Berako Bestak 2013* testua agertu behar du nahitaez, bertzelako testurik gabe. Kartel irabazlea herri bozketaren bidez aukeratuko da. Bozketaren sistema behar den momentuan jakinaraziko da.

BERAKO OIHUA

Bestetako programarekin batera banatuko den Berako Oihua aldirakirako lanak aurkezteko epea ere ireki da ekainaren 14a bitarte. Kultur Etxera eraman behar dira edo posta elektronikoz bidali (kultura@berakoudala.net edo kultura.bera@gmail.com helbideak)

Berriaren 10. urteurreneko antzezlanak

Berriak 10 urte beteiko ditu ekainaren 21ean. *Hamarnaka kontatzeko-ak gara* lelopean 30 kultur ekitaldi antolatu dituzte datozen hiru hilabeteetan eta gure eskualdeari dagokiona Beran egingen da maiatzaren 18an, larunbat arratsaldeko 8:00etatik aitzinera Kultur Etxean. Metrokoadroka sormen laborategiak urteurrenerako prestatu duen *Zertarako hegoak* antzezlan emanen du. Sarrerak Errekalden, Labiagan, Ricardo Baroja eta Toki Onan eta Lesakako Arranon eros daitezke edo egunean beran Kultur Etxean.

Labiagako ingeles udalekuak

Urtero bezala, Labiaga Ikastolak ingeleseko udaleku antolatu du, ingelesaren erabilera eta hizkuntz honekiko bizi-pena bultzatuz HH (5 urte), LH eta DBHko ikasleei zuzendua. Izen emateko epea maiatzaren 17a bitarte zabalik dago. Uztaillaren 1etik 12ra, uztaillaren 15etik 26ra edo uztaillaren 1etik 26ra eskainiko dira udalekuak, egunero 9:30etik 13:30era.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertsoz eta kantuz omendu dute Patxi Vila Mendiko sagardotegian

Patxi Vila Errandonea txirindulari profesional ohiak omenaldia jaso zuen apirilaren 26an Ibardingo Mendiko jatetxean egindako kantu-zahar eta bertso afarian. Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Frantzisko Santxotena akordeoilaria eta Alberto Zunzarren, Aitor Ibarra eta Patxi Mariezkurrena kantariak aritu ziren gainerako afaltiarrekin batera kantuan, Vilaren omenez. ETBko *Hitzetik hortzera* saioan ere erreportaje berezia eskaini zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Plazara ekimena maiatzaren 18an

Euskal Herriko eta eskualdeko bertze hainbat herritan bezala, Plazara Ekimena egingen da larunbatean, maiatzak 18, herrian ere. Hori iragarri, hainbat herritar bildu ziren. »Bakoitzak bere esparrutik, dituen aukeren arabera eta egoien baloratzen duen ekarpena eginez, bultzada eta ekimen guztiak aberasgarriak» direla adierazi zuten eta gonbidapen zabala egin zuten Bortzirietako pertsona, eragile, talde, ordezkari eta instituzioekin batera lan egiteko. «Plazak bete nahi ditugu maiatzaren 18an, modu irekian, argian, koloretsuan, irmoan eta masiboan. Aldaketaren nahia eta beharra irudikatu nahi dugu. Onerako den aldaketa, giza eskubideak, konponbidea eta bakearen alde» zioten idatzian.

Mendi Itzulia

Aitzineko alean aipatu bezala, maiatzaren 19an egingen da Agerra Mendi Taldeak antolatutako XI. Mendi Itzulia, 32 km. luze eta 1.750 metroko desnibelarekin.

Ba al zenekien...

17 urtez Berako odol-emaielen delegatua izan den Mariatxo Ugartemendiak bere kargua utziko duela eta ordezkari bat behar dela. Interesatuak 948 630207 telefonora deitu.



kulki
zure herriko jailetan
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

**FRUTAS
CONDENSADAS
BRANDONEA, S.L.**
FRUTAS DE CALIDAD
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasso, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

ESTRELLA DE LA LUZ
• Lur-lumilikoa • Igardua
• Erregin biltze osoan, larri eta
multzoak erabiltzen
DISKDEZIO OSOA
Hilazduz eskatu
T. 600 436 016

LESAKA

GIZARTEA → MAIATZAREN 18AN IZANEN DA

Besarkada haziera elkarteak lehen solasaldia antolatu du

Haurrak errespetuz hezteko moduak bultzatu nahi ditu

Aitor AROTZENA

Haurrak errespetuz hezteko moduak bultzatzeko Besarkada Bortzirietako Haziera elkarteak sortu da eta hainbat ekimen egiteko asmoa du.

Lehenbiziko hitzaldia maiatzaren 18an, larunbatean egingen dute Koskontako Bideko udal aretoan, 10:30etik 12:30era. *Nola jokatu kaskarraldietan haurrari begirunea erakutsiz. Zigorrik gabe hezteko alternatibak* gaia landuko du Pilar Seminario Haur-psikologo, irakasle eta Urtanta eskolako zuzendariak.

Izena emateko, telefono honetara deitu edo SMS bat bidali behar da: 646373936; edo mezu elektronikoa bidali helbide honetara: noplusmas@hotmail.com

Pertsona bakoitzeko 10 euro ordaindu behar da eta bikotea joaten bada, 5 euro biko-

tekide bakoitzeko. Sem-alabak ere eramaten ahal dira.

Balkoi loreduen lehiaketa

Jantzi zure balkoia goiburuean Balkoi Loreduen lehen lehiaketa antolatu du Zerbitzuen Elkarteak. Maiatzean eta ekainean egingen da eta epaimahaiak bisitak egingen ditu aldiro. Balkoiaren eta aitzinaldearen zainketa eta mantentze egoera, apa-induren originaltasuna, lore konposizioa eta antolamendua, loreen barrietate, kalitate eta iraunkortasuna eta espezieen eta elementu osagarrien eraberritzea barloratuko dituzte.

Akordeolari taldearen 30. urteurreneko kontzertua

Maiatzaren 25ean eskainiko du herriko akordeolari taldeak bere 30. urteurrena dela eta antolatu duen kontzertua. Larunbat arratsaldeko 6:00ak aldera kalejiran aterako dira eta gero kontzertua eskainiko dute Herriko Etxeko arkupetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Yoga ariketak Andra Mari Zahar Etxeko bizilagunentzat

Andra Mari Zahar Etxeko bizilagunek yoga saioa izaten dute hamabortzero, Elkarrian taldearen bitartez Dasya zentruko Begoña Altzugarai Lekuonak bere borondatez eskainia. Ordubetez, ariketa fisikoa eta erlajazioa lantzen dute, musikaren laguntzarekin. Asteartetan egingen dute saioa, 16:30etik 17:30era eta ondok, pasiatzera ateratzen dira Elkarrian taldeko boluntarioen laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburuaren Aste arrakastatsua Irain eskolan

Irain Eskolan Liburuaren Astea ospatu zuten. Hasiera emateko apirilaren 20an Eskolako irakasleak Lizarrara joan ziren Landa Eremuko eskolen Topaketan Irainxo liburutegi- mediatekaren inguruan hitzaldia ematera. Aste osoan, egunero 9:00etatik 9:30 arte irakurketa saioak egin zituzten. Errekroetan, berri, lehiaketak: txisteak, asmakizunak, zooeroa, ahokorapiloak, kolmoak... izan zituzten. Apirilaren 23ko Liburuaren Egunean Maite Gaztelumendi ilustratzaileak ipuin bat nola marrazten den hitzaldia eman zuen, bere lanak eta teknikak erakutsiz eta arratsaldean ilustrazio tailerra eskaini zuen plastika gelan. Ondoko egunetan, 28. Ipuin, komiki eta bertso lehiaketaren sariak banatu ziren eta filmak eskaini zituzten. Gurasoek, aitaxi-amatxiek, irakasleek... irakurritako lau ipuin entzuteko aukera izan zuten Irakurketa Txokoetan. Astea bukatzeko, aste osoan egindako lehiaketen sari banaketa izan zen.

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
T. 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE
Energia · Auzolari
BARRIOA, 31 · LESAKA
Tel. 948 637 127

BIDASOA
TURKAK - PERTSUNAK
BIZITOKAK - AUTOMATIZAK
MONTAJAK - BERRANTZAK
T.F. 659 971 442
BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Barria erosi taldea

Lentena
Barrutia
Martena
Jentzi tipikak
Pisatzen
kaltzagoria
Beneke plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 427 514

OSPAKIZUNAK → EUSKAL HERRI OSOKOAK ESPERO DITUZTE

Txistulari Eguna ospatuko da maiatzaren 18an herrian

80 txistulari baino gehiagok parte hartuko dute

Irune eta Itsaso

Maiatzaren 18an Txistulari Eguna ospatuko da. Egun hau urtero herri desberdin batean ospatzen da eta aurten Etxalarren iza-

nen da. Dagoeneko taldeka eta indibidualki 80 bat txistularik eman dute izena. Tuter, Castejon, Leitza, Goizueta, Andoain, Baiona, Lizarr, Orkoi, Bera eta bertze hainbat herritatik hurbilduko dira txistulariak. 10ak aldera harreka eginen zaie bertaratu diren txistulariei, eta plazan piezaren bat jo ondotik Elutsan gosa-

ria izanen da. Ondotik, herriari itzulia emanen zaio kalejira desberdinak joz, eta eguerdian La Basque jatetxean izanen da bazkaria.

Gasna Feria

Ekainaren 2an ospatuko da Gasna Feria eguna. Altxataren ize-nean gonbidapena luzatzen zaie gasnagile guztieri egun horretan



beraien gasnak aurkezteko. Hurrengo alean emanen da egitarau osoaren berri.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Lurritiederrako bestak

Urtero bezala maiatzeko lehenengo igandean ospatu ziren Lurritiederrako bestak. Ohiturari segituz, Agereberek bordan bildu ziren eta xuri-beltzak eta zirian erretako bildotsa jan zituzten. Bazkalondan euskal kantu zaharrak kantatuz giro ederra izan zuten bertaratutako 50 auzotarrek.

FLASH

Altxatako batzar orokorra

Maiatzaren 25ean arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxean izanen da Altxataren urteko batzar orokorra. Herriar guztiak gonbidatuak daude parte hartzera..

Presoen aldeko ekimena

Maiatzaren 18an elkarretaratze bat eginen da eguerdi aldera Etxalar-ko plazan. "Plazak bete nahi dira kartzelak hustutzeko" lelopean izanen da. Giza eskubideak. Irtenbidea. Pakea. Euskal presoak Euskal herrira.

Larraburuko batzar orokorra

Apirilaren 28an Larraburua Jubilatuen Elkartek urteko batzar orokorra egin zuen. 25 bazkide izan ziren eta hauek izan ziren mintzatutako gaiak: 2012ko kontuak eta elkar-tearen egoera ekonomikoa, 2012an burututako ekintzak, aurtenginen diren ekitaldiak eta bazkideen zerrendan izandako aldaketak. Hamaiketa-ko ederrarekin akabatu zen batzarra.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

TELLETXEA
Lorazaintza
- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESACA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxea.lorazaintza.com

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

ARANTZA

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Eskolako mendeurren bestako egitaraua zehaztua dago

Bazkarirako txartelak ostatueta salgai daude

Nerea ALTZURI

Urruti zegoela bazurdiaren ere, hilabete bat baino guttiago gelditzen da eskolako ehungarren urteurrenko besta ailegatzeko. Ekainaren 8rako prestaketa lanak aitzineratzen ari dira eta egitaraua ia lotua dago.

Goizean, 10:30ean, eskolatik altzaferoa botako da. Ondotik, Aitor Elexpuru zuzendariaren ongietorri hitzak adituta koan, logo berriaren aurkezpena eta ekitaldi instituzionala izanen dira. Segidan, hurrek bertso batzuk botako dituzte eta eskolako gimnasioan ikusgai egonen den erakusketako atea zabalduko dira. Aipatu beharra dago erakusketak hau egiteko materiala biltzen ari direla eta gisa berean,

egun horretan 12:00etan itxiko bada ere, bertze egun batzuetan berriz ere ikusgai paratuko dela.

Egunarekin segituz, 11:00etan trikitilariekin kalejira izanen da eta 12:00etan plazan dantzarien emanaldiak izanen dira. Bukaeran, herriko dantzak dantzatu-ko dira eta ahalik eta la- gun gehienek parte har- tzeko eskatu da.

Bertsolarien txanda ere izanen da, tartean, Sebastian Lizaso bera.

14:00etan bazkaria frontoian egingen da. Bazkarirako txartelak salgai daude ostatueta: hel- duek 32 euro; 8-14 urte artekoek 15 euro; eta 3-7 urte artekoek 10 euro ordaindu beharko dute.

Bazkalondoan, bertsolariak ariko dira. Esko- lari buruzko proiektio bat eman ondotik, herriko akordeiolari, trikitilari eta kantariak beuren saioa egingen dute. Oraindik ez dago zehaztua puzga- rriak izanen ote diren.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bertako produktuak saldu eta erosi ahal izateko aukeraren bila

Gauza jakina da herritar aunitzek lehen mailako barazki eta produktuak (esnekiak, zerrikiak, ezta, sagardoa, mermelada...) ekoizten dituztela etxean. Bada, produk- tu horiek bertze herritarrei eskaintzeko bidea ireki nahi du orain Arantzako Gizar- te Batzordeak. Gisa honetara, ekoizleak bere produktuei etekina aterako dio eta erosleak lehen mailako produktuak zuzenean eskuratu ahal izanen ditu. Hau guztia nola egin pentsatzen aritu da Gizarte Batzordea azken urtean eta orain, horien berri emateko bilera egingen da maiatzaren 31n, 19:00etan, Baskulan.

20:00etan batukada izanen da eta afaltzeko, bokadilo jatea egingen da frontoian. Egunari akabe- ra emateko, leku berean, dantzaldia Agerraldere- n eskutik izanen da. Txoz- na ere paratuko dute.

Goizuetara irteera

Bi urtetik behin egi- ten den bezala, Goizue- tara oinez joateko ateral- dia maiatzaren 25ean egingen da, Ekaitza Elkar- teak antolatuta. Joan na- hi duenak ostatueta eman behar du izena hi- laren 16a baino lehen.

Bataioak eta komunioak

Maiatzaren 25ean, lau

GIZARTEA → M18 PLAZARA EKIMENA

Larunbat honetan preso- en eskubideen alde elkarretaratzea eta bertso afaria egingen dira

Larunbatean, hilak 18, herrietako plazak eus- kal preso- en eskubideen alde betetzera deitu ditu Herrira mugimenduak eta Arantzaren ere ekimen horrekin bat egin da. 18:30ean elkarretaratzea egi- nen da eta 19:00etan mosaikoaren osaketa eta ar- gazkia. Ondotik, triki poteoa izanen da eta 21:00etan bertso afaria Ekaitza Elkartean, Amets Arzallus, Fredi Paia eta Xabier Silveirarekin. Txartelak Pablo- nean eros daitezke, maiatzaren 16a baino lehen.

haurren bataioa izanen da: Aner, Ioritz, Irati eta Intza. Eta ekainaren 2an, sei neska-mutikok Le- hen Jaunartzea egingen dute: Mikel Fernandez

Arozena, Leire Bereau Etxeberria, Nora Ramos Peña, Enaut San Juan Taberna, Aiora Iturria Otxandorena eta Luis Mi- gel Burgete Veintinillak.

BORTZIRI
UNSION ANIAK
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

sarobe
gozategia oinokoa

7º do estigara 25 baje 1948 630 959
34700 bera (navarra) www.sarobe.net

BAR Botxo OSTATUA

Zelai • BERA • 948 630 052

F. LANCHAS

Aku, boladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel.: 948 630 735 M: 607 406 781

JAKINLE-GOZATEGIA

948 630 786
Altzale, 19 • BERA

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → AZOKA ARRAKASTATSUA IZAN ZEN

Giro ederrean joan dira aurten ere Udaberriko bestak

Herriko gida eta etxeen errotulazioa egiteko erabiliko da azokan lortutako dirua

handiak izan ziren eta antolatzaileak hagitz kontent daude emaitzarekin. Horregatik, puskak eman eta erosi, antolatzen lagundu eta trikitixa jotzen eta opil egiten aritu ziren herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete.

TTIPI-TTAPA

Euskara batzordeak apiril bukaerako astebururako eta maiatzaren 1erako antolatuak zituen Udaberriko Bestak burutu dira. Eguraldi txarraren ondorioz, Berrizaunera egitekoa zen ibilaldi gidatua hurrengo baterako utzi behar izan dute.

Gainerakoan, programazio guztia bete ahal izan zen. Azpimarratzekoa aurten bortzgarren aldiz antolatu duten azoka. Azoka herritarrek ematen dituzten puskekin eta produktuekin egiten da, eta ateratzen den dirua herrirako proiektu baterako izaten da. Arrakasta handia izan du aurten ere azokak. Salmenta

HERRIKO GIDA ETA ETXEEN ERROTULAZIOA

Merkatuan bildu den diruarekin, euskara batzordeak bi lan egin nahi ditu. Batetik, herriko gida argitaratu nahi du, 2003an egin zuenaren antzekoa. Gida horrek herriko etxe guztien helbideak eta telefonoak bilduko ditu, eta etxe guztietara banatuko da. Bertze aldetik, herriko etxe guztiei beren izenarekin errotulu bat paratu nahi die, izen horiek galdu ez daitezen eta gehiago erabil daitezten lortzeko asmoarekin. Horretarako etxeen jabeekin harremanetan jartzekoa da.

Batzordea dagoeneko hasia da bi lan horietan, eta urtea buka-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gauza bitxiak plazaratu ziren azoka egunean.

tu baino lehen burutu nahi ditu.

Igantzi kantari

Maiatzaren 1ean ospatu zen lehen aldiz Igantzi Kantari ekimena. Azken bi hilabeteo-

tan hainbat herritar abesbatzarekin batera aritu dira euskal kantuak entsaiatzen, eta egun horretan karriketan barna kantatzen aritu ziren 30 bat lagun, trikitilari taldearen laguntzarekin.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Eskolakoak baratzea lantzen

Eskolako ikasleek bertan duten baratzean tenore honetako lanei ekin diete: aitzurtu, laiatu, ongarritu, jorratu eta lore eta letxuga ederrak landatu dituzte. Ikasle guztiek parte hartu dute, eta laister sari ederrak jasoko dituzte...

UDALA

Auzolanaren arautegia onartu da ahobatez

Joxean ORTEGA

Aitzinako ohitura berreskuratu egin du Udalak: auzo-lanazuzentzen duen arautegia aho batez onartua izan da eta hemendik aitzinera martxan paratzeko eman behar diren urratsak ematen hasiko da: bilerak deitu, lanen zerrenda egin, auzoetako arduradunak izendatu... Murrizketei aurre egiteko era solidario bat izanen da: guztion eskuetan izanen da herriak behar dituen hobekuntzak burutzea, eta gutti ez direnez, denon parte hartzea inoiz baino garrantzitsua goa izanen da. Arautegia Udaletxean nahi duenak irakurtzen eta eskatzen ahal du. Bertzaldetik, Udalak aldi baterako bi langile kontratatu ditu: 6 hilabetez egunero 6 orduz albinteari laguntzen ariko dira. Kultur Batzordea San Migel besten antolakuntzan hasia dela eta laster bilera deituko dutela erran digute. Ea jendea animatzen den!

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137
E-posta: imainuria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

ZUBIONDO
Jatetxea

lagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

ALTZURI
etxetresnak

ttipi txartela

%5eko
DESKONTUA
etxetresnietan

A

aterpe
allegria jantzen eta...
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

BORTZIRIAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 20TIK 31RA

Udalekuetan izen emateko epea irekiko du Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan ohi denez, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu, Dindaia Fundazioarekin batera.

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin udalekuak uztailearen 1ean hasiko dira, eta 26ra arte arituko dira. Lesakako kasuan, sanferminak dirrela-eta, udalekuak uztailearen 15ean hasiko dira, eta abuztuaren 9an bukatuko. Herri guztien kasuan, udalekuak astelehenetik ortziraleraren izen emateko irizpideak aldatu egin dira. Udalekuetan lehentasuna izanen dute

Izen ematea maiatzaren 20an, astelehena, hasiko da, eta zabalik egonen da maiatzaren 31ra arte, ortzirala. Bi bide izanen dira izen emateko: bata, mankomunitatearen web orriaren bitartez (www.bortziriak.org), eta bertzea telefonoz deituta (948634125, 9:00etatik 13:00ak arte). Taldeasortzeko beharrezkoa da herri bakoitzean gutxienez 8 neska-mutikok izen ematea.

Aurten izen emateko irizpideak aldatu egin dira. Udalekuetan lehentasuna izanen dute



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azken urteotan 150 haurrek eman dute izena udalekuetan. Argazkian, Arantzakoak iaz.

Bortzirietan erroldatuak eta bertako ikasleak (D eta B ereduak) matrikulatuak dauden neska-mutikok. Baldintza horiek betetzen ez dituzten neska-mutikok ere izen ematen ahalko dute, baina itxaron zerrendetan geldituko dira, eta epea bukatu eta gero, taldeak antolatzen direnean, jakinaraziko zaie

onartuak izan diren edo ez. Matrikulari dagokionez, ume bat apuntatuz gero, 85 euro balio du; bi anai-arreba baldin bada, 150 euro; hiru anai-arreba izanik, 180 euro. Dena den, plaza konfirmatu eta gero eginen da ordainketa.

BI ESKAINTZA

Udaleku irekietan adinaren arabera bi es-

kaintza egiten dira. Baretik, 3-7 urte bitartekoek udalekuetako ohiko ekintzak izanen dituzte. Bertetik, 8-12 urte bitartekoentzat adin tar- te horri egokitutako sormen tailerrak izanen dira, hau da, musika eta dantza tailerrak, ura eta naturarekin lotutako tailerrak, sukaldaritza, bertziklajea, txangoak, pirtak, esku lanak...

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal dizugu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugu!

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Hirinet.net	Aikor	Barren	Elgoibarren.net	28 kanala	
Berton	Aikor.com	Baleike	Baleike.com	Karkara	
Bilbo Hiria Irratia	Anboto	Baleike.com	Erlo telebista	Karkara.com	Txintxarri.info
Prest!	Anboto.org	Uztarria	Uztarria.com	Antxeta Irratia	Alurri
Uk	Goiena Papera	Uztarria	Uztarria.com	Hernaniko Kronika	Alurri.com
Ukberri.net	Goiena.net	Goierra telebista	Galtzaundi	Kronika.net	Ttipi-ttapa
	Goiena telebista	Galtzaundi	Galtzaundi.com	Noaual	Ttipi.net
	Pil-pilean	Galtzaundi	Galtzaundi.com	Noaual	Xaloe telebista
	Plaentzia.com	Galtzaundi	Galtzaundi.com	Txintxarri	Mailope
					Xorroxin Irratia
					Guaixe
					Guaixe.net
					Euskal Herria Irratia

OSPAKIZUNAK → ARTISAU FERIA IGANDEAN

Asteburu Kulturala eginen da hilaren 17tik 19ra

Mendi eta bizikleta martxa eginen da larunbatean

Maider PETRIRENA

Azken urteetan martxoaren azken asteburuan egiten zen Asteburu Kulturala. Aurtengoan ezin izan da horrela egin eta maiatzaren 17, 18 eta 19an eginen da.

ORTZIRALA, MAIATZAK 17

- 16.30: Haurjokoak eta ondoren txokolatada.
- 22.00: Mus txapelketa Bustitz ostatuan ortziler bezala.

LARUNBATA, MAIATZAK 18

- 09.30: Inskripzioa fon-

da atarian Mendi eta Bizikleta martxetarako.

- 10.00: Mendi ibilaldia: Plaza-Arretxeko-borda-Zumaleku (hemengosaria)-Txurinborda-Plaza. Bizikleta ibilaldia: Plaza-Auloa-Bulatxiki-Zumaleku (hemengosaria)-Arretxekoborda-Plaza.

- 14.00: Bazkaria Ariztigailan Kanpenean (apuntatu nahi duenak bertara deitu beharko du). Atsaldepartean, karaoke eta jokoak kanpenean bertan.

- 16.00: Gorriti eta bere animaliak. Ondoren berendua.

- 18.30: Antzerki emaldia. Ilunabarrean po-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Ameriketako ibilitako artzainek besta egin zuten maiatzaren 1ean

Maiatzaren 1ean Sunbillako Amerikanoek beraien besta ospatu zuten. 1987 urtez geroztik ospatzen dute egun hau. Urtetik urtera jendea guttitzen ari da normalean den bezala. Hildakoen aldeko meza eman zuen Don Basiliok. Ondotik Ulibeltzak elkartera hurbildu ziren beraien lur azpiko ogiarekin aperitiboa hartzera. Ameriketako ohitura zuten edaria hartu zuten, Highball-a. Ondoren Ariztigailan kanpenean bazkaldu zuten eta berenduekin akitu zuten eguna.

teo herrikoia.

IGANDEA, MAIATZAK 19

- 10.00-14.00: V Artisau feria eta Herriko Gazten Lehiaketa.
- 12.00: Dantzariak

- 16.30-19.30 Artisau feria.


- 19.00: Gazta Lehiaketaren sari banaketa eta Saskiaren zozketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrera anaiak mendi bizikletan

Eneko eta Koldo Herrera anaiek Rural Kutxak urtero antolatzen duen BTT martxetan parte hartzen dute. Martxoaren 3an hasi zuten denboraldia Izkuen. Apirilaren 21ean Izurdiagan izan ziren eta Enekok 4. postua lortu zuen eta Koldok irabazi egin zuen bere kategorian. Maiatzaren 5ean Tafallan izan ziren. Eneko 6. gelditu zen eta Koldo berriz ere txapeldun suertatu zen bere 10 urterekin. Zorionak Herrera anaiei eta segi horrela!



TESTUA ETA ARGAZKIA: ALIZIA OLAIZOLA

Kilotik goitiko amurrairekin dotorea arrantza denboraldia hasteko

Maiatzaren 1ean hasi da amurrairekin arrantzaren denboraldia eta arrantzale dexente ibili da Bidasoa bazter hauetan lehendabiziko egunetik. Hemengo eta inguruko arrantzaleez gain, baita Errioxa aldetik ere etortzen dira. Argazkian ageri denez, Paul Irazoki eta bere semea Pablok ongi hasi zuten denboraldia, maiatzaren 1ean 1,190 kiloko amurrai eder hori arrantzatu baitzuten Bidasoan.

MENDIKO
SAGARDOTEGIA · ERRETILAK · JOSTEIA

IBARDIN (BERA)

SAGARDOTEGI MENUA
Txorizoa sagardoan | Bakailao-tortilla | Bakailao frijituak | Txuleta | Gazta eta inbaurrak

MANTTALE MENUA
Kroketak | Bakailao-tortilla | Txuleta | Gazta eta inbaurrak

EGUNEKO MENUA

Joan-etorriko garraioa negoziatzeko aukera
Gauetz irekia (guttieneko taldea 20 perta.)

ERRESERBAK:
948 630 302
670 365 011

DESKONTUA

Bono hau erakutsita **%10eko DESKONTUA** (menu berezietan izan ezik)

Zaldia

ttipi txartela

%10eko DESKONTUA
produktuetan

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 18AN

Gazte Eguna antolatu du Burrunbak larunbaterako

Dama, Hesian, Kaotiko, Revolutionary Brothers eta DJ Uriz ariko dira gauean

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Gazte Burrunbak Gazte Eguna antolatu du maiatzaren 18an.

Hainbat ekitaldi prestatu dituzte larunbateko egitarau zabalean.

- 10:30tik 13:00era haurrentzako jokuak izanen dira.
- 13:00etan kuadrilen arteko paella lehiaketa.
- 14:00etan bazkaria.
- 16:30ean Herri kirolak.
- 19:00etan trikipoteoa.
- 21:00etan hitzaldiak Bearzana pilota plazan
- 22:00etan kontzertuak Bearzanan: Dama, Hesian, Kaotiko, Revolutionary Brothers eta DJ Uriz.

Agorreta Musika Eskola

Agorreta Musika Eskolak 2013-2014 ikasturterako izen emateko epea zabalduko du. 6 urteko umeentzat musika eta mugimendua eta 7 urtetik goitikoentzako lau zikloetaz gain, eskaintza bereziak izanen dira 12 urtetik goitikoentzat eta helduentzat, instrumentua ikasteko solfeorik gabe edo Haur Abesbatzan parte hartzeko, 2. eta 3. zikloetan ikasi gabe. Akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, pande-reta, perkusioa, pianoa, trikitixa eta txistua ikasten ahal da. Izen emateko epeei dagokienez, ikasle zaharrek maiatzaren 20tik 24ra egiten ahal dute eta ikasle berriek maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. Irailaren 9tik 13ra ere epe berezia irekiko da eta familia ugariagatik deskontuak izanen dira.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Maiatzaren 1eko manifestazioa egin zuten LAB sindikatuak

250 lagunek bat egin zuten maiatzaren 1ean LAB sindikatuak *Borrokatu, matxinatu eta iraili Euskal Herria* izenburupean deitutako manifestazioarekin. Bartzuk, Elizondotik egindako bizikleta martxan ailegatutakoak ziren. Karrikaz karrikako bilbidea Merkatuko Plazan akitu zuten eta bertan mitina egin zen. Maiatzaren 30eko greba orokorrarekin bat egiteko deialdia ere egin zuten.

ELKARTEAK

Ekainaren 8an ospatuko da Erreka elkartearen Eguna

TTIPI-TTAPA

Erreka elkartearen Egunak data finkatu du: ekainaren 8an egingen da, nahiz eta ekitaldiak ekainaren 7an, ortziralararekin hasiko diren. Hurrengo alean emanen dugu programaren berri.

Errekako eskubaloiko talde seniorrak denboraldi polita egin du aurtengoan ere, baina ez du lauko finalean sartzeko modurik izan. Azkenean, Huarte suertatu da txapeldun. Infantil mutilak, ordea, Ligako azpitxapeldunak suertatu dira Anaitasunaren gibeletik. Apirileko hondar asteburuan lau talde onenek *Final Four* jokatu zuten Iruñan. Erre-

kak Burlada eta Loyolaren kontra irabazi eta Anaitasunaren aurka galdu ondoren, Nafarroako bigarren talderik onena izan da Jesus eta Pilar Olallak entrenatutakoa. Orain, kopa jokatzen ari dira eta finala Donezteben jokatuko da maiatzaren 18an. Oraindik ez dago zehaztua zein talde izanen diren finalean (espero Erreka bertan egotea!), baina Federazioak ia konfirmatu du Doneztebe izanen dela finalaren sedea.

200.000 BISITA

Erreka Kirol Elkarteko Blog-ak 200.000 bisitak gainditu ditu sortu zenetik.

APARAN, S.A.

ERRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



Gure Haragia
Nuestra Carne



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI TELLETXEA
Billarrean jokatzeko aukera ematen du ostatu berriak.

GIZARTEA → KRISTINA ETA IGORREN ESKUTIK

Iratxo Kobazuloa ostatu berria ireki dute

Ekainaren 7rako kontzertu berezia iragarri dute, gorputz tibetar, ahotsa eta gong-ekin

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Kristina eta Igorrek, ostatu berria ireki dute Donamarian, Iratxo Kobazuloa. Bertan aukera ezberdinak daude, bokatak, hanburgesak, plater konbinatuak, razioak, pizzak (bertan jateko zein eramateko).

eta enkargatuz gero, menu bereziak jateko aukera. Ostatuan beste aukera bat, txikien txokoa dago, non haurrak ongi pasatzeko aukera duen ipuin eta jostailu ezberdinekin. Eta gazteentzat billarra dago dibertimendurako. Kan-

poan ere terrazatxo bat dauka. Astelehen eta asteartetan itxita dago ostatua. Erreserbetarako 633231640 telefono-ra deitu behar da.

Ekintza bat antolatu dute Kristina eta Igorrek ostatuan ekainaren 7rako. 19:30ean hasiko

da kontzertua. Kontzertu honek, gorputz tibetanoak, ahotsa eta gong-ak izanen ditu eta gutxi gora behera ordu bat iraungo du. 10 euro balio du sarrerak baina horrekin batera, trago bat hartzeko aukera izanen da.



ARGAZKIAK: IZASKUN GOÑI TELLETXEA

Asteburu Kulturala arrakastatsua izan da

Maiatzaren 2an hssi zen asteburu kulturala oso arrakastatsua izan da. Jende asko elkartu zen ekintza ezberdinetara, pizza tailerrera, xaboi tailerrera, masa-jeetara, birziklapen tailerrera, talo egitera... hurbildutako guztiek primeran pasatzeko aukera izugarria izan zuten, ekintza batean zein bestean. Larunbatean ere giro ederra izan zen herriko ostatuan musikaren laguntzaz. Eskerrak eman behar ditugu bertan lanean aritu diren guztiei eta parte hartu duten guztiei.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

2013 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuwinak • toailak

ITUREN

GIZARTEA → UDALA ETA HERRITARRAK BURU-BELARRI DABILTZA

Bestak antolatzekeo hurrengo bilera maiatzaren 17an izanen da

Ortziralean 20:00etan Herriko Etxeko ganbaran

Arkaitz MINDEGIA

Herriko besten antolakuntzan buru belarri dabilta udala eta herritarrak. Hurrengo bilera maiatzaren 17an ilunabarreko 8etan izanen da herriko etxeko ganbaran. Herritar guziak gonbidatuak daude herriko besten inguruan beraien ideiak bota eta besteenak entzutera.

Mintzaldiak

Pulunpa eskolako guraso elkarte hainbat ekitaldi antolatzen ari

da. Maiatzaren 23an, *Gurasoak izateko desafioa* mintzaldia antolatu dute. Camira kooperatibako Nuria Valentin psikologoak guraso izateak dakarren arazoak, aktibitateak, psikologia, afektibitatea aztertuko ditu 16:30etik 18:30era. Pulunpako gurasoez aparte, herriko jendeguziari ireki eta zabaldua dago.

Mendaurrera ateraldia

Ikasturtea bukatzekeo gutti falta den honetan, Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek ateraldi berexia dute aurrean. Eguraldiak laguntzen badu, maiatzaren 17an Mendaurrera egi-

nen dute ateraldia. Goiz goizetik joanen dira egun pasa, Haur Hezkuntzakoak enbalsetaraino kotxean joanen dira eta besteak Aurtiztik hasi eta enbalsaraino oinez. Indarrak geratzen badira, Mendaurrereko kaxkora igoko dira.

Udal langileak

Berriki udalak bi herritar kontratatu ditu herriko lanak egiteko, Peio Mikeo eta Jokin Almandoz, hain zuzen ere. Azterketa egin ondotik dagoeneko udalarentzat ari dira lanean, herriko lanak eginez, bidak garbituz... Lau hilabete eta erdiz ariko dira langile hauek udalarentzat lanean.



Ander Erasun Urrezko Aizkoran

Ander Erasun ederki dabil bakarkako Urrezko Aizkoran. Maiatzaren 1an Lazkaon ari-tu zen Donato Larretxea, Ugaitz Mugertza II eta Jesus Mari Mugikarekin batera eta final laurdenetarako txartela lortu zuen, Mugertzaren gibeletik sailkatu baitzen.

ZUBIETA

GIZARTEA → BOST LAGUN AURKEZTU ZIREN

Egoitz Esarte izanen da herriko langilea

Fermin ETXEKOLONEA

Herriko langilea hartzeko deialdia egin ondotik bost lagun aurkeztu ziren eta horien artean Egoitz Esarte hartu du Herriko Etxeak.

Gaztegunea

Txitxillo elkartekeo Gazteguneko ikasturte bukaerako bilera egin zen. Maiatzean langilearekin irekiko da eta hortik aurrera gurasoez izanen dituzte giltzak.

Uritzako fiesta

Iturri inguruko fiesta ekainean eginen da. Joan den igandean egitekoa zuten bilera, baina seguruenik ekainaren 1ean ospatuko da.

Herritar berria

Azken herritarra, Oskia Elizalde Dominguez apirilaren 28an jalo zen. Zorionak Eva Elizalde eta Ernesto Dominguez gurasoei, baita Patrixi amatxi ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontzertuak eta zinea Herriko Ostatuan

Soñadores Natos taldeak emandako kontzertuko argazkian ederki ageri denez, giro bikaina sortzen ari da Herriko Ostatuetakoko kontzertuetan. Maiatzaren 17an, rock bertsoak izanen dira *Kon dos bemoles* taldearekin. Hilaren 24an, *El rapero case-ro rap&antzerkia*. Hilaren 31n *Bertsolari* dokumentala eskainiko da, Asier Altuna zuzendariarekin. Ikusi eta eztabaida sortuko dugu. Denak, 22:00etan.

ELGORRIAGA

Urteko batzarra egin du Zorroilo elkarteak

Mattin LARRALDE

Zorroilo elkarteko bazkideen bilera orokorra egin zen maiatzaren 5ean. Bertan urteko kontuak eman ziren, bazkideen sarre-ak eta irteerak eta bertze zenbait gai. Jende aunitz inguratu zen eta bertan aritu ziren solasean eta iritzi asko onartuak izan ziren. Beti ona da horrelako bileratara ahalik eta jende gehiena joatea, bakoitzaren iritziak ideia berri bat sortzen ahal duelakoz.

Gizarte Zerbitzuetatik langilea

Malerekako Gizarte Zerbitzuetatik langile bat jarri dute herriendako. Lehengo urtean izan du zen pertsona bera izanen da eta zorionez, herritarra gainera! Joseba izango dugu aurten ere gurekin. Zorionak berari, lana izatea gaur egun zoriontzekoa da eta.

Zilarrezko Ezteiak

Bertze aldetik zorionak eman nahi dizkiogu Iñaki Erasun eta Bego Olazareri, maiatzaren 7an egin baitziztuzten euren Zilarrezko Ezteiak. «25 urte elkarrekin bizitzen daramatzue eta horrek esan nahi du elkar oso ongi eramaten jakin duzuela. Beno bikote muxu pottolo pilo bat maite zaituztegun guztion partetik».

OSPAKIZUNAK → MANKOMUNITATEAK ANTOLATUA

Malerrekako Eguna bigarrenaz ospatuko da maiatzaren 25ean

Mendi ibilaldia egingen da Iturendik abiatuta Eratsuneraino

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitatean dauden hamahiru udalerrietako herritarrak Eratsunen bilduko dira aurten, bigarren aldiz egingen den Malerrekako Egunaren baitan. Joan den urtean Zubietan izandako arrakasta errepikatze-ko asmoz, egun osoko besta antolatu dute maiatzaren 25erako.

Goizean, 10:00etan, harrera ekitaldia egingen

da eta herrietako ordezkariak egunari hasiera emanen diote. Ondotik aureskua dantzatuko dute eta gosaria eskainiko zaie herrieta-ko ordezkariari. 10:30etik 12:00etara musikariak herrian barna ibiliko dira: trikitilariak, Doneztebeko abesbatza eta musika eskolako kideak... Horrez gain, dantzariak herriko plazan saioa eskainiko dute.

Aldi berean, 11:00etatik 14:00etara, artisauak plazan egonen dira eta pilotaren inguruko erakusketa ere ikusgai izanen da. Opi- la dastatu nahi duenak horretarako aukera izanen du eta buru- haun-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eratsunek Zubietaren eskutik hartu zuen iaz Malerrekako Egunaren erreleboa.

diekin harat eta honat ibiltzeko modua ere izanen dute neska-mutikoek. 12:30ean aizkora apustua jokatuko da eta 14:00etan paella jatea egingen da.

Arratsaldean, berriz, 16:00etatik 17:00etara muxikoak izanen dira eta ordu berean hasi eta 18:00 arte ume eta gazteendako tailerrak eta jokoak izanen dira. Malerrekako Mus Txapelketaren finala ere orduan jokatuko da. 18:00etan bertsopilota

izanen da, esku-pilota eta paxakan oinarritua eta 19:00etan txokolata eskainiko da.

19:30ean zozketa egin eta mus txapelketako sariak banatuko dira eta hurrengo urteko Malerrekako Eguna antolatzeko lekukoa ere orduan pasatuko dute Eratsungo ordezkariak. 20:30ean musika izanen da plazan, 21:00etan joaldunak aterako dira eta 21:20ean afa-ria eskainiko da. 00:00etatik aitzinera

musika izanen da plaza.

BERRIKUNTZAK

Herri afarirako txartelak Malerrekako Mankomunitatean eskura daitezke, edo 948 451746ra deituta. Horrez gain, mendi ibilaldia egingen da Iturendik Eratsunera, 09:00etan Iturengo plazatik abiatuta. Berrikuntza gisa, egun guztian autobus zerbitzua antolatu dute Malerrekako herri guztiak Eratsunekin lotuz.

Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online zurekin

Zure etorkizuna, gure erronka

Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.



Telekomunikabide elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika mikroprogramablea



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Hezkuntzako Lege Organikora egokitua (LOE), Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituena industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik goizez eta bi kurtsoan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egin nahi duten ikasleentzat ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Orduetgia ikasle goaren beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bestelako beharrak ikasketarekin tartekatuta ahal izanen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratzu.

Eleanitzasuna

Eleanitzasuna frantsesez edo ingelesez: zenbait zikloko modulu egin daitezke.

HEZIBI Programa

Txandakako Lanbide Heziketa

Modalitate berri bat da ikas-ekinezko heziketan oinarritua. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan-kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuz.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Leonardo da Vinci (Erdi Mailakoentzat) eta *Erasmus* (Goi Mailakoentzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpresetan praktikak egiteko aukera dute martxotik ekainera bitarte. Batez beste, urtean 15 beka iza-



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Kokapena:

Elizatxo, 10
Irungo erdigunetik 300 metrora,
Elizatxo etorbidea eta Aduana
kalearen bidegurutzean.



GPS:

N 43° 20.198'
W 1° 47.897'

ATE IREKIEN ASTEA

ERDI MAILA: Maiatzak 20, astelehena, 18:30ean
GOI MAILA: Maiatzak 21, asteartea, 18:30ean
ARRETA PERTSONALIZATUA:
Hitzordua aldez aurretik eskatuta

ten dira eta, hala, Bidasoa Institutuko ikasleek aukera dute nazioartean barneratzeko, atzerriko hizkuntzan duten maila hobetzeko eta Europako industria ezagutzeko.

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enprestatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailatzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamabost enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresen prestakuntza-beharren diagnostikoa

2013 / 2014 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza osoa, egunez

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

* **Gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra
biak barne

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 8tik 12ra
biak barne

EZKURRA

GIZARTEA → FAMILIA OSPAKIZUNAK

Etxeberría familiako hamasei lagun bildu ziren bazkaltzera

Hainbat lanetan aritu ziren arbasoak gogoan izan zituzten

Fernando ETXEBERRIA

Familiako loturak berri eta bizilegearen ondorioz falta diren senideak gogoratzeko helburuarekin famili ezberdinetako kideak urtean behin elkartzeko ohitura ugaritzen ari da Ezkurran. Horixe egin zuten Etxeberría familiako 16 kidek, bazkari eder baten inguruan bildu baituzten, beraien arbasoak gogoratzuz: Juanitok Ziordia, Urto eta Ataloko erabakimenean lan egin zuen; Jose komer-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Etxeberriatarrak, familiako bazkarian.

tziantea izan zen eta arropa saltzen ibili zen Goizueta, Basaburua, Ultzama eta Orexa inguruan; Ignaciok magisteritzan ikasi zuen, baina Atarrabiko psikiatrikoan aritu zen erizain eta

Alejandrok kaminero lanak egin zituen Malerreka osoan. Horretarako erabiltzen zuen burdinezko bizikleta gordea daukate oraindik. Arreba bakarra, Fidela, etxeokoa izan zen.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Lehen Jaunartzea

Maitanek eta Mikeleneko Mikel eta Aingeruk lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 5ean. Cecilia Balda katekistarekin ageri dira argazkian. Meza ondotik bazkari ederra izan zuten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

San Migelen bisita

Apirilaren 29an etorri zen San Migelen irudia eta ohi-turari eutsiz, San Rafaelen irudiak eta gurutzak egin zioten harrera elizatarian. Izan zen, Osasuna futbol taldearen salbazioaren alde eskatu zionik ere.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 4AN

Giro ederra izan zen Ittur-Ondoko Bazkide Egunean

Arantxa ITURRALDE

Ittur-ondo elkarteko bazkideek bere eguna ospatu zuten maiatzaren 4an. Eguraldiak poliki lagundu zuen eta egun ederra izan zuten hainbat ekitaldiez gozatu ahal izateko.

Eguerdi aldean, taldetxo bat elkartu zen kantu zaharrak abesteko karrikan barrena, Malerreka Kantuz ekime-

naren baitan. Gustora eta giro ederrean aritu ziren betiko kantuetan.

Ondoren, bazkal aurretik, ohitura eta tradizioa den bezala, herritarren arteko aizkora lehia jokatu zen: Jose Luis Telletxea eta Xabier Mindegia, Jesus eta Miguél Anjel Etxeberría anaiak, eta hirugarren bikotea Jazinto Etxekolanea eta Pello Telletxea.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Ohiko aizkora saioz gain, Malerreka kantuz ere izan zen aurtengoan.

Bazkaltzeko, bazkideek menu berezia izan zuten, besteak beste,

bakailua eta txuleta. Arratsaldean mus txapelketa jokatu zen. Pa-

txi Otxandorena eta Jose Albistur suertatu ziren irabazle.

GOIZUETA

KIROLA → HELDUEK 9 KILOMETRO EGINEN DITUZTE

Umore Onaren herri krosa hilaren 26an egingen da

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean herri krosa berreskuratu zuen Umore Ona Elkarteak eta aurten ere egingen da, bigarren urtez segidan, maiatzaren 26an.

Igande goizeko 10:30ean hasiko dira txikiak, 10 urte arteko neska-mutikoak eta 800 metroko ibilbidea egingen dute. 10:45ean alebin, infantil eta kadete mailako korrikalariak aterako dira (11-15 urte artekoak) eta 1.800 metroko ibilbidea egingen dute eta 11:00etan emanen zaio irteera 16 urtetik gorako en laisterketari. Hiru kilometroko luzera du zirkuituak eta hiru itzuli egin beharko dira, bederatzi kilometro osatuz.

Laisterketaren inguruko informazio gehiago eta izena emateko www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke. Izen-ematea orokorrean 10 euro gostakoda, baina herritarrentzat 8 euro eta egunean berean 15 euro.

Kanpotik datozen partaideentzat, antolakuntzak dutzak eta motxilak uzteko gunea prestatuko ditu. Gisa berean, parte hartzen

dutenentzat opariak izanen dira eta zozketak ere egingen dira.

SARIAK

Gizonezko eta emakumezkoetan, sailkapen orokorrean lehenengo hiru postuetan gelditzen direnak sariak izanen dituzte: lehenak txapela, bildotsa eta botil bat ardo; bigarrenak bi txuleta eta botil bat ardo eta hirugarrenak baserriko oilaskoa eta botila ardo. Horiez gain, helmugaratzen diren lehenengo gizonezko eta emakumezko goizuetarrek bakoitzak trofeoak, bildotsa eta botil ardoak hartuko dituzte.

Gogoan izan, Internetez aurretik eman daitekeela izena www.kirolprobak.com webgunean edo bestela, egun berean.

Astebururako ekintzak

Aurreko alean aipatu bezala, larunbat honetan erreka garbitzeko deialdia egina dute. Egun berean, hainbat kinto bazkari egingen da eta biharamonean komunioen txanda dator. Asteburu mugitua izanen da oraingoa ere.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Goizueta ezagutzen laugarren mendi buelta

Umore Ona elkarteak antolatzen duen *Goizueta ezagutzen* laugarren mendi buelta egin zuten apirilaren 28an. Nahiz eta asteburu guztian eguraldi kaxkarra izan, zortea lagun izan zuten eta igande goizean eguraldia portatu egin zen. 36 lagun bildu ziren mendi buelta egitera. Plazatik abiatu eta Labeko borda, Pentaxelaia, Etxolla, Txakurtxoko borda eta Kaleko bordan barrena, berriz ere herrira bueltatu ziren. Herri Krosa dela eta, maiatzean atseden hartuko dute.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro ederra izan da aurten ere Txinoko festetan

Hamargarren urtez giro ederra izan zen maiatzeko lehen asteburuko Txinoko festetan. Ostiralean, Aralar Musika Eskolako kontzertua, bertsolariak eta mus txapelketa izan ziren. Larunbatean, dantzari txikien saioaren ondotik, txupinazoa botata Koro Eskudero auzotarrak. Segidan, trikitixa doinuak hedatu ziren eta horien ondoan, lehen aldiz, gaztetxeak hala eskatuta Rosa Olaizolak sortutako dragoi koloretsua ibili zen. Txinoko auzotarren eta herritarren arteko herri kirol desafioa, hamar lagunez osatutako bi taldeek hamar proba egin ondorekin ez zen irabazle garbirik suertatu eta berdinketarekin bukatu zen. Herri bazkarian 150 bat lagun bildu ziren, arratsaldean ere musika izan zen eta gauean kontzertuak gazteen tabernan NoNguayaz eta Patxuko Nice taldeekin.

Ba al zenekien...

Oriamendi 2010 enpresak osatzen duen ranking-ean B multzoan apirilako erremontelarik onena izan zela Aritz Zubiri. Jokaturako sei partidetatik bost irabazi zituen.



LEITZA

OSPAKIZUNAK → ALKE ETA ERAGILEEN ESKUTIK

XXXVI. Kultur Aroan murgildua dago herria

Maiatzaren 26ko Eskulangintza Azokaren 35. edizioarekin borobilduko da hilabeteko egitarau zabala

JM BARRIOLA

Alke Leitzako kultur Taldeak eta herriko eragileek elkarlanean maiatza-ekainean kultur aroa antolatu dute. Bertan musikak, hitzaldiak, artisautzak eta festak toki izanen dute. Urteroko moduan herriko komertzio eta lantegiak, eta baita Kaxkabeltza komertzianten Elkar-teak, Udalak, Aurrerak, guroso elkarteak, Ate-kabeltz Elkar-teak, Torrea, Perritza eta Gaztañaga taberneak posible eginen dute XXXVI. Kultur Aroa aurrera egitea. Maiatzaren 10an haurrekin sormen tailerra eta antzerkia egin zen Erleta eskolan. Maiatzaren 11n eguerdian Gorritiko gazteluan elkartu zen jendea, eskualdeko oroimena berreskuratuz. Maiatzaren 15an 20:00etan liburutegian *Aizkora apustuk eta txapelketen historia* hitzaldia eskainiko da. Maiatzaren 16an, *Banka etikoa eta alternatiboa* hitzaldia izanen da, Fiare bankaren Mikel Ortigosaren eskutik. Maiatzaren 17an,

19:00etan zinean Aralar Musika Eskolako emanaldia eta 23:00etan Peritzan "Carlos Colina y los otros" kontzertua.

Maiatzaren 18an, larunbat goizeko 9etan mendi ibilaldia: Okabio-Areso-Leitza, Mendibil mendi taldearen eskutik. 20:00etan Hirutxulo folk taldearen kontzertua Gaztañagan. Hau ekigande eguerdian ere joko dute leku berean. 12:00etan organo eta biolin kontzertua elizan, Igande arratsaldean 19:00etan *Pottola* antzerki lana zinean.

Maiatzaren 20an, 19:30ean *Emakume baserriarren begiradak* erakusketaren aurkezpena eta dastaketa izanen dira Udaleko aretoan (Josune Gorriti, EHNE).

Maiatzaren 21ean, 20:00etan *Elikadura subrotasuna* hitzaldia Aurreran 20:00etan Aina-rra Urrizaren eskutik.

Maiatzaren 22an, 20:00etan Aurreran auzolanaz ariko da Josune Mitxelorena.

Maiatzaren 23an, 20:00etan *Independenzia Nafarrorik gabe?* mahai ingurua Floren Aoziz, Txente Rekondo eta Anjel Rekalderekin.

Maiatzaren 24an, 17:00etan zinean Leitzako haurren dantza saioa. Ondoren, 23:00etan, La Jodedera taldearen kontzertua Torren.

Maiatzaren 25ean,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskulangintza azokak 35. edizioa beteko du maiatzaren 26an.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Aieneko garbiletuan panela jarri da

Lehen, lau garbiletu izan ziren gure herrian. Horietatik Aienea etxe ondoan, plazako goi partean dagoena, ailegatu zaigu garai hauetara. Ursain garbiletukoa-rena zati bat dago, Iturrizarrea izenarekin ezaguna dena. Iturriberrian, Aieneko garbiletua izenarekin ezaguna dena, Udalak panel bat jarri du. Bertan, garbiletu lanak, nola egiten zituzten, teknikak, sabea, lixue, eta garbiletu zaharrak non ziren azaltzen da.

egun guztian Ate-kabeltz Eguna ospatuko da, eta gauean kontzertuak izanen dira. Jeiki abesbatzak 20:00etan karrapetan kontzertua emanen du, Munduko folklorea gaiarekin.

Maiatzaren 26an eta 11etatik aurrera XXXV. Eskulangintza Azoka ospatuko da. Ondoren, ekainean, Kultur Aroko ekintza gehiago izanen dira eta hurrengoan emango dugu horren berri. Erakusketak izanen dira Aurreran eta Udaletxean.

Plazako XXI. pilota txapelketa

Eskuz binakako pilota txapelketa antolatu da XXI. aldiz herriko plazan. Pilota goxoarekin jokatuko dira partidua eta 15 urtetik gorakoak parte hartu dezakete. Ligaxka bat eginen da eta ondoren 1. eta 2. mailako finalerdi eta finalak jokatuko dira. Aurrerako pilota eskolakoek antolatzen dute plazan jokatzen den txapelketa eta arrakatsua suertatzen da.

Jubilatuen Eguna ospatu zuten

Bazkari eder batekin ospatu zuten jubilatutek beren eguna. Maiatzaren lehen igandean ospatu ohi dute jubilatutek elkarteok beren egun hau. Jenaro Sagastibeltza da 140 kide biltzen dituen elkartearren presidentea. Eguerdiko meza ondoren bazkaldu zuten eta 85 urtetik gorako zazpi lagun eta Urrezko Ezteiak egin dituen bikote bat omendu zituzten.

KULTURA → GIDOIA PRESTATZEN HASIAK DIRA

Festetan emanaldia eskaini nahi du antzerki taldeak

Juana Mari SAIZAR

Sortu berri den antzerki taldea, berriro martxan jarri da, hasi dira biltzen eta oraingoan herriko festetarako beste gidoia prestatzen ari dira. Aurrekoa izugarri gustatu omen zen eta herritarrek animatu dituzte segitzera. Honen harira, esan behar da aurreko inauteriak eta antzerkiaren kopia salgai jarriko dela nahi duten guztientzat. Horretarako apuntatzeko orria Sastinean jarriko da.

Mikel Olazabal

Promozio mailako txapelketan, Mikel Olazabal herriko pelotari gaztea final laurdenetara sailkatzea lortu zuen, Jon Apezetxearen aurka 22-16 nagusitu ondoren. 26 urteko pilotariak kontratua berri du Asperekin, abendura arte. Hilabete honetan bertan bukatzen zitzaion kontratua Eibarko enpresarekin. 2007ko abuztuan debutatu zuen Olazabalek eta 6 denboraldi egin ditu

empresa honetan. Ea suerteko jarraitzen duen eta emaitzak onek kontratuaren luzapena ekartzen dioten.

Frontenis txapelketa

Herriko festetan frontenis txapelketa jarri nahi da aurtengoan. Horretarako ligaxka aurretik egin nahi da, eta festetan finala. Jendea animatu eta apuntatzeko orria Sastinean jarriko da. Bikoteak mixtoa izan behar du.



ARGAZKIA: IGONE GOIKOETXEA

Maitzako Loreak

Maitzako loreak ohitura betetzen segitzen da elizako ospakizunetan. Neskato gazteek (aurten jantzi berriekin) amabirginari loreak eskeintzen dizkiete herriaren izenean, maitzako igande guztietan.



ARGAZKIA: IGONE GOIKOETXEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Pake Tokiko Mus txapelketa

Pake toki elkarteko mus txapelketaren finala apirilaren 27an jokatu zen. Migel Mari Begiristain eta Migel Zabaleta suertatu ziren txapel-dun eta Aingeru Etxaide eta Txomin Zubilaga azpitxapel-dun. Arratsaldean finaleko partidak jokatu ondoren, afari ederrarekin eta trofeoaren banaketarekin bukatu zen eguna.

Mikel aingeruaren bisita

Mikel aingeruaren bisita izan genuen apirilaren 28an. Beti bezala, meza ospatu zuen eta herriari bedeinkazioa eman zion. Mezetara joan ez zirenek plazan bera agurtzeko aukera izan zuten. Orain bisita bueltatzea gelditzen da, iraileko lehen igandean herriko gurutzera joango zaio bisitan, beste hainbesterekin.



Giovani Valdi
Sandro Sellini
Caramelo gala

Serapio Mugika, 11
20302 IRUN
943 612 626



www.capelettimercheirun.com



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 5EAN EGIN ZEN

Musika Eskolaren 25. urteurrenean akordeoia hartu zuen Elizondo

Miguel Mari Iparragirre irakaslea omendu zuten kontzertuaren ondotik

TTIPI-TTAPA

Baztango Musika Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen barnean akordeoi taldeak kontzertua eskaini zuen maiatzaren 5ean, igande eguerdian Mariano Izetaren plazan. Aitzinetik kalejiran ibili ziren, eguraldi ederra lagun zutela. Mende laurden honetan eta zazpi urte lehenagotik ere akordeoi irakasle izan den Miguel Mari Iparragirre omendu zuten.

Izan ere, Baztango Musika Eskola sortu zenerako ematen ziren txistu eta akordeoi klaseak Elizondon. Miguel Mari Iparragirre

duela 57 urte jaio zen Arantzan eta hasieran ahosoinua jotzen bazuen ere, 13 urterekin hasi zen akordeoia ikasten Martin Ibarrola Arantzako organujolearekin eta gero Gipuzkoaldean, Jose Mari Irazoki irakasle lesakarrarekin eta Pepe Andoain akordeolari famatuarekin. Herriz herri hainbat ospakizunetan jo zuen, Elizondon akademia ireki zuen arte. Urteetan hainbat ikasle izan ditu, 25 bat urtero eta horiek omenaldia eskaini zioten igandeko kontzertuaren ondotik, ordu batzuk lehenago ateri-tako erretratoa opari eman ez. «Musika tresna konpletoa da akordeoia, ia harat eta honat gainean eramaten ahal den orkestra bat eta horrek popularitatea ematen dio beste-tan», aipatu zuen Iparragirrek.

Miguel Iparragirrek



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Baztango akordeolariak orogarria eman zioten Miguel Iparragirre irakasleari.

zuzendutako akordeolari orkestrak hainbat kantu eskaini zituen, Amaia Zaldainek bakar-ka ere emanaldi bikaina eskaini zuen eta kontzertua akitzeko, Musika Eskolako ikasle eta ikasle ohiek Peio eta Pantxoren *Adios maitia* jo zuten.

Ba al zenekien...

Felix Menaren omenez Itxusi argazki elkar-teak lehen aldiz antolatutako argazki digita-len rallyan hamasei argazkilarik parte hartu zutela Oronoz Mugairin. Aste honetan erabakiko du epaimahaiak gai bakoitzeko irabazleak eta aitzinerago, oraindik zehaztu gabeko egunean, egingen da sari banaketa.

benta berrin
 izardingo plaza - BETA - IZARDINGO - benta-berrin@hotmail.com

ERRESERBAK
948 630 708

Benta Berrin gure gastronomia, menu goxoak eta arrain freskoan espezializatutako karta dastatu dezakezue

DISKONTUA
 Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

GILTXAURDI
 UDAL KIROL INSTALAZIOA

ttipi txarreta

%50eko DESKONTUA
 matrikulan
 Baldintza: urte oso baterako baskide izatea

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 18AN

Dena prest dago Euskal Herria Palestina egun haundirako

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, palestinarrei elkartzasuna adierazteko Euskal Herria Palestina Eguna larunbatean ospatuko da, maiatzaren 18an. Egun osoko besta antolatuta du Euskal Herria-Palestina Sareak. 10:00etan dianak hasiko dira eta ordu horretan murala margotu eta erakusketa zabalduko dute. 11:00etan James Petras eta Adel Abou Salemek *Inperialismoa*, *Sionismoa* eta *Apartheid* Palestinan solasaldia eskainiko dute. Ordu berean hurrengo jokoak ere izanen dira: kometa eta txalaparta tailerrak... Jo-

aldunekin kalejira ere egingen da fanfarreak lagundurik eta Check Point israeldarra eta jateko arabiarra ere izanen dira.

Eguerdian, elkarretaratze bateratua egingen da. Alde batetik, *Preso palestinarrak etxera* leloa izanen du eta bertzetik, Herrira mugimenduaren deialdiarekin bat eginez, *Giza eskubideak*, *irtenbidea*, *bakea Euskal Presoak Euskal Herrira* lemarekin bat egingen dute. 12:30ean Euskal Herria-Palestina ekitaldia izanen da eta 13:00etan dantza palestinarrik ikusteko aukera izanen da.



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

Benedicto Aita Santuarekin batera hasi eta akitu du Kalapitek ibilbidea

Ratzinger Aita Santu izendatutakoan hasi zuen ibilbidea Kalapite musika taldeak, eta biekin bateratu akitu dute ibilbidea. Apirilaren 20an Elizondan eta 26an Erratzuko Zubipunta ostatuan eman zituen agurreko kontzertuak Erratzuko taldeak, diska berria aurkeztearekin batera. Argazkiak Erratzun emandako kontzertukoak dira, eta giro ederra sortu zen.

14:00etan zikero jatea egingen da eta aldi berean kantaldia izanen da Fermin Balenziarekin. 18:00etan ginkana izanen da eta 22:00etan kontzertuak, La Jodedera taldearekin, bertzeak bertze.



UTZITAKO ARGAZKIA

ERREPIDEAK

Saihesbidetik Elizondorako sarbidea irekitzea agindu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak N-121-A errepideko saihesbidetik Elizondorako sarbidea maiatzaren 20an irekitzea agindu du. Hori dela eta, 19a bitarteko

epea eman diete Baztan eta Elizondoko agintariei sarbideko harriak kentzeko. Elizondoko batzarrak bertzelako sarbideak aztertzea ere eskatu zuen, baina proposamen hori ez dute kontuan hartu Iruñean.

Auzolana eta bazkaria Anizko Mendiarten

Anizko Mendiarte Kultur elkarteak auzolana egin zen maiatzaren 4an. Auzolanaren ondoren lehendakari elkartearen kideen bazkaria izan zen eta 25 bat lagun bildu ziren. Bazkalondan, Dorita Barreneite eta Roxario Iturrulerdi hainbertze urte sukaldari lanetan aritu direnei esker onez, lore xorta baina eman zitzaion. Argazkian Kani eta Iñaki juntakideak ageri dira Dorita eta Roxarioekin.

Ibon Urutiaga
Fisioterapia Zentrua
www.fisioibon.com
948 250 221
Erelokietan, 9 • IRUNEA

Pierresenea
OSTATU • JATETXEA
Jaki tipikoak • Etxeko giroa
Iburriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ • MUGAIRI

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzirik Asegurua, Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Normak eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, bodega, pinu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

BESTAK → MAIATZAREN 17TIK 20RA

Berroetan aurten ere Patagoniakoen arteko lehia izanen da

Mendekoste egunez herri kirol desafioak izanen dira

(Txartelak Maialen/Andoni).

- 00:00: dantzaldia TRI-KIDANTZ taldearekin. (Gantorri autobus zerbitzua gau osoan.

TTIPI-TTAPA

Berroetako Mendekoste bestak ospatuko dituzte asteburuan eta aurten ere ekitaldi aski bereziekin hornitu dute egitaraua:

ORTZILERIA, MAIATZAK 17 BEZPERA

- 20:00: suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30: txopo goratzea eta herriko trikilariek.
- 21:00: Mutildantzak.
- 21:30: Baztan-Zopak

LAUNBETA, MAIATZAK 18 HAURREN EGUNE

- 11:30: Leurtza Abentura: puzgarriak, karts-ak.
- 16:00: Leurtza Abentura: puzgarriak, karts-ak.
- 19:30: Patagoniakoen arteko lehia: Mikel Goñi eta bere taldea vs. Manu Maritxalar eta bere taldea.
- 20:30: Batukada emaldia.
- 21:30: herri afaria (txartelak salgai Alaitz/Asier).

BESTAK → MAIATZAREN 29TIK EKAINAREN 2RA

Almandozko bestak ekitaldiz gainezka datoz

Tortilla lehiaketa izanen da

- 13:00: luntx.
- 16:30: pilota partidak.
- 19:00: puzgarriak.
- 20:30: patata tortilla lehiaketa.

TTIPI-TTAPA

Almandozko Besta-berri bestak ere ekitaldiz gainezka datoz maiatz hondarrear eta ekain hasieran:

ASTEAZKENA, MAIATZAK 29 BEZPERA

- 12:00: Txupinazoa.
- 21:00: Baztanzopak, Joxe Angelen konpainiarekin.

OSTEGUNE, MAIATZAK 30 BESTABERRI EGUNE

- 08:00: Aurora.
- 12:00: Meza Nagusia.

OSTIRALA, MAIATZAK 31 HAURREN EGUNE

- 11:00: Haurrendako jokuek.
- 13:00: hamaiketako plazan.
- 16:00: puzgarriak.
- 17:00: mus txapelketa.
- 18:00: Txokolatada.
- 21:00: herri afarie.
- 00:30: GABEZIN taldea.
- 02:00-03:00: 3x2 edari guztietan.
- 06:00: Zinger jatea auzartenendako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere umorez ospatuko dituzte Berroetako Mendekoste bestak.

- 00:00: dantzaldia SANTXOTENArekin. Gero, talde sorpresa.

IGENDIA, MAIATZAK 19 MENDEKOSTE EGUNE

- 12:00: Meza Nagusia Gaztelu taldearekin. Doneztebeko erraldoiak herriko trikilariek.
- 13:00: hameketakoa plazan.
- 13:30: pilota partidak.
- 18:00: Baztango dan-

- tzari tikiak.
- 18:30: Herri Kirolak. Basaburua-Betelu eta ondotik, arpana desafioa: Andoni-Eneko vs. Gillermo-Ekaitz.
- 20:30: SANTXOTENArekin dantzaldia.
- 22:00: xinger jatea eta euskal kantu zaharrak SANTXOTENArekin.

ASTELEHENA, MAIATZAK 20 ZIKIRO EGUNE

- 11:00: XL. bizikleta itzulia.
- 11:45: Baztandarren Biltzarrak antolatutako argazki erakusketa.
- 12:15: mus txapelketa.
- 14:30: zikiro jatea SALABERRIrekin.
- 18:30: asto karrera.
- 19:30: herriarren arteko futbol partida.
- 21:00: xinger jatea SALABERRIrekin.
- 22:00: Gaixoa ni.



UTZITAKO ARGAZKIAK

1965ean Baztandarren Biltzarrako karroza lehiaketa irabazi zuen Almandozek. Lanean ageri da Ramon Apezetxea apeza eta karrozari Libusko Maria eta Uzpereko bordako Enrique amatxi-atatxiak eta Beheitikoetxeko Andres eta Begoña Sanzberro.

LARUNBATA, EKAINAK 1

- 11:00: museko finalak.
- 13:00: Mus txapelketa-ko sarien banaketa.
- 14:00: zikiro jatea.
- 18:30: asto karrera.

- 17:00: Mariatxiak: DISTRITO FEDERAL.
- 19:30: Mutildantzak.
- 00:00: DJ ZORTAS.
- 03:00-03:30: Txupitokak doan kontsumizioko.

IGANDEA, EKAINAK 2

- 12:00: Meza nagusia.
- 16:30: herri kirolak.
- 18:30: zozketa.
- 19:00: Puzgarriak.
- 21:30: Gaixoa Ni.

GIZARTEA → EUSKARA ZERBITZUAREN ESKUTIK

Udako jostaldietan izena emateko epea zabalik dago

Irurita, Erratzu eta Elizondon eskainiko dira

TTIPI-TTAPA

Euskara eta aisialdia uztartuz, aurten ere udako jostaldiak antolatuta ditu Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuak 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako. Uztailean eta abuztuan hiru txanda eskainiko dira, 10:00etatik 13:00etara.

Uztailaren 1etik 12ra Iruritan izanen da udako jostaldia, uztailearen 15etik 26ra Erratzun eta uztailearen 29tik abuztuaren 9ra Elizondon. Aste bakarra ere egin dai-

teke, baina lehentasuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen errol-datutakoek izanen dute.

Jokoak, eskulanak, tailerra, ateraldiak, kirola... Tarte horietan denetarik egiteko aukera izanen dute neska-mutikoeak, eta hori guztia euskaraz. Bide horretatik baitoaz ekimen honen helburuak: euskaraz jolastea, Baztango haurren arteko harremanak euskaraz bultzatzea, Baztango kultura eta natura euskaraz lantzea, haurren garapen pertsonala lantzea eta ingurugiroarekiko jarrera positiboak sustatzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Zahar Etxeko txapelketak jokatu dira

60 partaide bildu dituzte Elizondoko zahar-etxean urtero ospatzen diren mus, seises eta partxis txapelketek, eta hauek izan dira saridunak: mus txapelketan, Santiago Larre eta Juan Jose Elizetxe txapeldun (argazkian), 2. Paquita Otxandorena eta Martin Ansorena; 3. Ignacio Elizetxe eta Ixidro Juanikotena; 4. Felix Leiza eta Francisco Jorajuria; Seises txapelketan 1. Sor Carmen Oyarzabal; 2. Inocencia Arriada; 3. Francisca Danborena; 4. Antonia Echenique. Partxis txapelketan: 1. Cristina Aldaco; 2. Juan Jose Durruty; 3. Ramoni Aristieta eta 4. Jesus M^a Escudero. Zorionak eta helduden urtera arte!

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 24an akituko da izena emateko epea. Interesatuak Dindaia Fundazioa dei dezakete, 696 277599ra, 10:00etatik 13:30era. Baztanen errol-datuta-

koek txandako 65 euro ordaindu beharko dute, 55 euro familia ugaria bada edo txandan anaia-arreba bat baino gehiago badira. Aste bakarra aukeratzekotan, 35 euro ordaindu behar-

ko dira. Baztanen ez errol-datutakoek 120 euro ordaindu beharko dute txandako eta 65 euro aste bakarra aukeratzekotan. Ordainketa egin baino lehen izena emateko deitu behar da.

udako jostaldia 2013
Baztanen uztailean da abuztuan
3-12 URTE BITARTEKO HAUR ETA GAZTETXOENDAKO
hori guztia euskaraz!

NOTIZ: Uztailean eta abuztuan, goizeko 10:00etatik 13:00etara

TXANDAK:
1- Uztailearen Tetik 12ra | Iruritan (Kodea IRU)
2- Uztailearen 15etik 26ra | Erratzun (Kodea ER)
3- Uztailearen 29tik abuztuaren 9ra | Elizondon (Kodea ELI)
[Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehentasuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen errol-datutakoek izanen dute]

HELBURUAK:
• Euskaraz jolastea
• Baztango haurren arteko harremanak euskaraz bultzatzea.
• Baztango kultura eta natura euskaraz ezagutzea.
• Haurren garapen pertsonala lantzea.
• Ingurugiroarekiko jarrera positiboak sustatzea.

JARDUERAK: Jokoak, eskulanak, tailerrak (birzikilatzea, buztina, antzerkia...), ateraldiak, kirola...

PREZIOA: Baztanen errol-datuak 45€ txandako | 55€ familia ugaria bada edo txandan anaia-arreba bat baino gehiago badira | 35€ aste bakarra. Baztanen ez errol-datuak 120€ txandako | 65€ aste bakarra.

IZEN EMATEA: Telefonoz Dindaia Fundazioan Tel.: 696 27 75 99. Maiatzaren 13tik 24ra, goizeko 10:00etatik 13:30era. Epea luzeazina izanen da. Plaza mugatuak. Ordainketa egin baino lehen izena emateko deitu, eta ordainketa egiterakoan haurraren izena eta kodea jarri. Kontu zk. (La Caixa) 2100 5255 10 2200035704 Ordaintzeko azken eguna: Maiatzaren 30a

AURKEZTU BEHARREKOA: Familia ugariaren txartela, behar izanez gero (Balleko Etxean)

Antolatzailea
Baztango Udala
Euskara Zerbitzua

SENPERE

GIZARTEA → LANEK BERANTA HARTU DUTE

Herriko saihebiderearen idekitzea 2015rat gibelatu du Kontseilu Nagusiak

Zuzenbidean heldu den urterako bururatu beharko lirateke

Franck DOLOSOR

Urguri auzoan barna egiten ari den karrika nagusiaren saihebiderea heldu den urtean ideki behar zen osoki Ibarrun eta Olha artean baina berriki Pirineo Atlantikoetako departamenduak jakinarazi du lanek beranta hartuko dutela. Lanak heldu den urtean bururatzeko partez, ondokoan izanen da, beraz 2015an. Diru murrizketak direla eta erabaki hau hartu omen dute Kontseilu Nagusiak. Berriki saihebiderearen zati bat ideki da Ibarrun eta Urguri erdia artean eta jadanik herri-

tar andana hortik pasatzen da bereziki Amotze eta Sara alderat joateko maiz bete bete den herriko karrika nagusia saihesteko. Saihebidere osoa egiteko bidea luzatu beharko dute eta bigarren zubia altxatu Urdazuri ibaia- ren gainean. Lanek beranta hartu omen dute departamendu osoan.

Aintzirako lanak bukatuak

Udazkena eta udaberria artean, lan gotor- rakk egin dira aintziran ur zikinak biltzeko. Lanak behar bezala iragan dira egutegia errespetatuz. Horri esker nahi bezala ospatu dira berriki triatloia eta Herri Urrats. Heldu den udazkenean aintzira sartze- ko aparkalekua bukatu dute asfaltoa egi- nez. Berziklatzeko biltegi berriak ezarri ditu herriko etxeak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ongi etorria Naia Lacroix-ri

14 hilabetez preso egon ondoren, Naia Lacroix libro gelditu zen aintzineko egun hauetan eta apirilaren 30ean ongi etorri ekitaldia ospatu zuten bere lagunek eta familiak Ibarrungo plazan. Gazte senperrak bere etxean atxilotu zuten iazko otsailean udako etxe baten kontra egin omen zuen eraso saiakera batengatik.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Xixtera herri sartzean

Iñaki Viquendi herriko artista gazteak asmatu eta altxatu duen 4 metrako xixtera ezarri dute berriki Ibarrun aldean, Senpere sartzean den itzulbidean. Obra hunekin erakusten da Senpererat sartzean pilotaren lurraldean sartzen dela. Gogoratu, munduan barna ezaguna den kirola gure herrian asmatu zela eta Senpererek pilotari haundiak eman dituela aspalditik.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Ibarrun eta Urguri arteko zatia ideki da jadanik.



ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → BAZKARI HERRIKOIA AZKETAN EGINEN DA

Xareta Eguna ekainaren 1ean ospatuko da herrian

Urdazubitik Zugarramurdira ibilaldia eginen da pottoka bidetik

Margari eta Koro

Jose Miguel Barandiaran ikertzaile ospetsuak Xareta deitu zion Sara, Ainhoa, Urdazubi eta Zugarramurdik osatzen duten eremuari.

Hori dela eta, gan den urteaz geroztik Xareta Eguna ospatzen da. Gan den urtean Urdazubin antolatu zen, eta aurten Zugarramurdin eginen da, ekainaren 1ean.

Hauek dire egunean izanen diren ekitaldiak: 8:30ean: ibilaldia Urdazubitik Zugarramurdira pottoka bidetik. 12:00etan: dantzari tikiak plazan, eta aperitifa musikaz girotua. 12:30ean: pilota partida. 14:30ean: Bazkari herrikoia "Azketa"n. Bazkal ondotik: kantu eta dantzak Joxe Angel akordiolariarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Murrizketen kontrako ikasturteko azken elkarretaratzea

Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolek murrizketen kontra ikasturte osoan egin dituzten elkarretaratzeen azkena maiatzaren 2an egin zuten Zugarramurdiko plazan.

Ospakizunetako erretratoak

Eskultura eta marrazkiak egiten dituen Agurtzane Anduetzak eskaintza berezi bat ireki du udaberri honetarako: Lehen Jaunartzeak direla eta bertze gisako momento berezietan opari egiteko erretratu artistikoak eskaintzen ditu. Interesatuta izanez gero, hauek dira bere telefonoak: 685 730 433 eta 667 792 457

Basurdeak

Basurdeak ia-ia herri barneraino sartu zaizkigu apiril hondarrean. Goiz aldera hiru basurde ikusi zituzten helipuerto inguruan. Biharamunean arrastoak begiratu, eta apantziaz Odiako zokotik ailegatu eta bidez bide etorriak zirela ikusi zuten. Martinea inguruan ibili ondotik, berriz bide beretik partitu omen ziren. Senperen etsitura ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Basurdeak bide bazterrean.

tean basurdeak omen dituzte, eta susmoa da handik eskapo etorriak ote ziren.

BERTIZARANA

Erregerenak dimisioa eman eta Joxe Etxart da alkate berria

TTIPI-TTAPA

Bi urte pasatu dira Bertizaranan udal talde berria lanean hasi zeneetik. Geroztik, normalean izaten diren hasiera gogorak gaindituta, gai aunitz jorratu dituzte, bakoitzaren gora behera logikoeekin.

Antonio Erregerena alkateak hurrengoari txanda eman dio arrazoi pertsonalak direla eta. Bertizko Turismo Partzuergoan lehendakari ordea eta eskualdeko garapen batzordeko presidentea ere bada Erregerena, baina bi kargu horiek ere utziko ditu.

Maiatzaren 8ko udal batzarrean eman zuten erabakiaren berri eta hemendik aitzinera, Bilduko zerrendan hirugarren zen Joxe Etxart izanen da alkate berria eta Idoia Hermandorena lan taldean arituko den zinegotzia, lana garbi eta txukun egiten segitzea asmoz eta gogoz.

AGARRA

ttiipi txartela

% 5 DESKONTUA

honi artikuluetan

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

SARA

KULTURA → JAKINTZA ELKARTEAREN ESKUTIK

Larrungo guduen aurkezpena egingen da berriz ere

Joana GUERENDIAIN

Joan den zenbakian aipatu bezala, Jakintza elkarteak erakusketa antolatu du Larrun puntan, Urdazuriko guduen bigarren mendeburuaren karietara. Erakusketa honek bere atekak berriz idekiko ditu maiatzaren 23 eta 30ean, ostegunez, goizeko 10:30etik arratsaldeko 3etara. Lekuak erreserbatzeko Larrunera deitu: 0559542026.

Korrika

Korrikaren 18. edizio-rako diru frango bildu da Saran. Herriko ofiziale, merkatari eta dendariengandik 2565 euro bildu dira, oroitarazi behar da hauek beren borondatez ematen dutela dirua. Elkarteek al-

diz, kilometroak erosteko aukera dute, eta hor ere parte hartze ona izan da, 1090 euro bildu baitira. Oroitarazi behar da diru hori zuzenean AEK-ra joaten dela, materiala erosteko, erakasleak ordaintzeko. Horretarako AEK elkarteak nahi ditu eskertu laguntza ekarri duten guztiak.

Belar gaineko esku baloi txapelketa

Heldu den ekainaren 1ean Animaineko zelaietan, Basurdeek eta urtxintzek antolaturik, belar gaineko esku baloi txapelketa egingen da. 6ko ekipa mistoak (bederen 2 neska) osatu behar dira, izena emaitzeko bada maiatzaren 25a arte. Izena emaitelan 10 euroko parte har-



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Pleka trinketeko pala txapelketako finalak jokatu dituzte

Apirilaren 27an jokatu ziren Pleka trinketeko pala txapelketako finalak. 3. mailan, Usaralde-Gimenok 50-45 irabazi zieten Dupérou-Jolimoni-i. 2. B mailan, Zugasti-Zugastik 50-28 irabazi zieten Mihura-Sarrosquiri eta 2. A mailan, ordu terdiko partida gogorraren ondotik, Fagoaga-Larretxeak 50-48 irabazi zieten Dotzarague-Etxegarairi. Aña eta Iñaki antolatzaileekin ageri dira argazkian.

tze bat galdetua da eta gero iluntzeko janari mahaia idekia izanen zai-zue. Iluntzeko janari mahaia deneri idekia izanen da (txapelketan parte hartu ez dutenei ere) eta sartzean 10 euro pagatu beharko da. Izena emaitzeko Herriko etxeko edantegira joaten ahal da edo ondoko zenbakietara deituz: 06.79.88.97.07 edo 06.73.91.54.59

TURISMORAKO HELBURU GISARA

Larun indartzeko hitzarmena sinatu dute

TTIPI-TTAPA

«Mugaz gaindiko turismo iraunkor baten sinboloa eta Euskal Herria eta Nafarroako tontor mitikoa den Larrungo gunea sustatzera» konprometitu ziren apirilaren 26an Larungo kaxkoan hainbat agintari, tartean Sarako eta Berako auzapezak, Georges Labazee, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakaria, Jean-Claude Coste, Goratasuneko Estazioen Establimentuko lehendakaria eta Michel Hiriart, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkartegoko lehendakaria.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (San Jose)
LESACA | ELIZONDO (Baztan) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (San Pedro) | ELIZONDO (Baztandarra)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK
EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



**Imanol
CASCALLANA GUTIERREZ**

Beran, 2013ko apirilaren 30ean hil zen,
36 urte zituela



Sobera abudo joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu

ZURE FAMILIA



Martutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Solinekoak
- ♥ Ilerrako opaingarniak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidosoa. 12 • BERA • 948 631 425



kukuka
ZURE BEHARRA GUSTIA

WEB-a marbutan dugul

www.kukukuhautarropadenda.com

Zarripurutz. 1 • DONEZTEBE • 948 450 252



Belen
Lantzerak • Plasmak

AUKERA ZABALA LORETAN

Intrakardi, 8 • DONEZTEBE
T. 948 451 758

EZKONTZAK

Iorite Ekain De Madariaga eta Oihana Iturria, Sarakoak, maiatzaren 4an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ainhoa del Pozo Riopedre, Berakoa, apirilaren 22an

Urki Bertiz Grajirena, Sunbillakoa, apirilaren 25ean.

Narcisa Maria Espanescu, Lesakakoa, apirilaren 25ean.

Oskia Elizalde Dominguez, Zubietakoa, apirilaren 28an.

Ibai Haitz Berrouet, Sarakoa, apirilaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jose Antonio Iribarren Perurena, Goizuetakoa, apirilaren 23an, 56 urte.

Jesus Maria Etxenike Larralde, Berakoa, apirilaren 23an, 44 urte.

Maria Dolores Etxegarai Bastarrika, Elizondokoa, apirilaren 26an, 60 urte.

Francisca Subizar Etxepare, Legasakoa, apirilaren 28an, 84 urte.

Mikaela Goienetxe Violet, Berakoa, apirilaren 29an, 95 urte.

Daniel Arburua Tomasena, Leitzakoa, apirilaren 30ean, 74 urte.

Imanol Cascallana Gutierrez, Berakoa, apirilaren 30ean, 36 urte.

Jose Erasun Mariezkurrena, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 4an, 83 urte.

Maria Josefa Agerrebere Alkasena, Zigakoa, maiatzaren 4an, 94 urte.

Manuel Agesta Jorajuria, Sunbillakoa, maiatzaren 5ean, 83 urte.

Benito Tainta Garcia, Lesakakoa, maiatzaren 5ean, 92 urte.

Ignacio Lizartza Perurena, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 58 urte.

Pierre Goyetche, Sarakoa, apirilaren 23an, 66 urte.



Eskeirik asko beti zure sorginak zaintzeagatik.
MAITE ZAITUGU

BAUTISTA ERASUN TELLETXEA
Zubietza 1442/12/04 - Doneztebe 2013/05/18
(1.URTEURRENA)



Jesus Maria ETXENIKE LARRALDE
Piki
Beran, 2013ko apirilaren 23an

*Izar berri bat biztu duzu zeru gainean,
haren argia izanen dugu oroimenean.*

GOIAN BEGO
ALAIK TALDEA (BERA)



Severiano MITXELENA JORAJURIA
Sunbilla, 2011ko maiatzaren 18an
II. URTEURRENA

*Zu joan zinen momentutik,
gure bihotzek ez dute bakerik;
ez dago denboran atzera joaterik,
ezta ere zuri gehiago ikusteko aukerarik;*
*Denbora pasatuta ere,
gure artean zaude bizirik,
ez baitago zeruan guretako
zu bezalako izarririk.*

EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA

TXIRRINDULARITZA → BIDASOALDEKO II. SARIA ANTOLATU DU IGANTZIKO BILTOKIK MAIATZAREN 25EAN

Nafarroako elite eta sub-23 txapelketa eskualdeko errepidetan erabakiko da

Igantzik abiatu eta Piedadeko gainean izanen du helmuga 130 kilometroko lasterketak

TTIPI-TTAPA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen dituen lasterketen baitan sartuko da aurten ere Bidasoaldeko Saria. 2011. urtean antolatu zuen lehen aldiz Igantziko Biltokiko txirrindularitza atalak eta aurten ere Biltoki izanen da antolatzaila.

Maiatzaren 25ean egingen den aurtengo edizioak duela bi urtekoaren ibilbide beretsua



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Txirrindulariak Nabazera igotzen 2011ko Bidasoaldeko Sarian.

izanen du, baina kilometraje handiagoa izanen du, 130 kilometro. Izan ere, 2011ko lasterketa 105 kilometrokoa zen, Lehendakari txapelketako Sub-23 kategoriako lasterketa baterako aski, baina aur-

ten elite kategoriako txirrindulariak ere aterako dira, beraz Euskaldun txapelketarako baliagarria izanen da eta horretarako 130 kilometroko ibilbidea prestatu dute: Igantzitik abiatuta, Berrizaun, Bera, Lesaka,

Piedadeko gaina, Igantzi, Berrizaun, Sunbilla, Mugairi, Berrizaun, Bera, Lesaka, Piedadeko gaina, Igantzi, Berrizaun, Sunbilla, Berrizaun, Lesaka, Nabazko gaina, Lesaka, Berrizaun eta Igantzitik

pasatu ondotik, Piedadeko gainean izanen du helmuga. Orain bi urte, gaur egun profesionalen ari den Yelco Gomez panamarrak irabazi zuen Piedaden.

NAFARROAKO TXAPELKETA

Bidasoaldeko Sari honek, Nafarroako errepideko txapelketa ere erabakiko du. Beraz, elite eta sub-23 kategoriako lehenbiziko nafarrak, 2013ko Nafarroako errepideko txapeldu ere izanen dira.

Bidasoaldeko II. Saria maiatzaren 25ean abiatuko da, larunbat arratsaldeko 3:30ean eta Nafarroako Itzulieren aitzineko astean denez, maila handiko parte hartze zabala espero da.

TXIRRINDULARITZA → BETERANOAK

Nafarroako Itzulian aritu da Transbidasoa-Euromaster taldea

Ion Zeberio elizondarrak senior mailako sailkapena irabazi zuen

TTIPI-TTAPA

Transbidasoa-Euromaster taldeko txirrindulariak Nafarroako Itzulian aritu ziren apirilaren 19tik 21era. Tute-
ra, Monteagudo eta

Irurtzunen izan ziren lau etapak eta maila izugarria izan zen parte hartzaileen artean. Azkenean Orquin taldeko Héctor Guerra madrildarrak lortu zuen garaipena.

Lehen egunean soilik 69 parte hartzailek lortu zuten laisterketa akitzea eta ondorioz sailkapen nagusiaren lehiatik kanpo txirrindulari ugari gelditu ziren. Taldea lehiakor aritu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere gogoz lanean ari dira Transbidasoa-Euromaster taldeko txirrindulariak.

baina ez zuen aitzineko postuetan ibiltzeko aukerarik izan. Ion Zeberio elizondarrak 19. postua eskuratu zuen sail-

kapen nagusian, senior mailan sailkapen nagusia eta hiru etapetan lehen postua lortuz. Aipatzekoa da Zeberio be-

rak taldearen denboraldiko lehenbiziko garaipena ere lortu zuela hileraren 5ean Burgosen egindako lasterketan.


MENDIA → MAIATZAREN 26AN EGINEN DA

Almandozen hasi eta akituko da Baztango XX. Mendi Itzulia

Maiatzaren 24ra arte Internetez eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA

Almandozek hartuko du Baztango XX. Mendi Itzuliaren lekukoa. Maiatzaren 26an egin du hitzordua Baztango Mendigoizaleak elkar-teak eta egun horretan biltzen diren mendizaleek 38 kilometro eta 2.250 metroko desnibela duen ibilaldia egiteko aukera izanen dute. Almandozen (353 me-



ARGAZKIA: BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

Aurtengo Baztango Mendi Itzuliaren ibilbidea.

tro) hasi da itzulia eta handik Belaterako (820 metro) bidea hartuko

dute mendizaleek. Gero Lantz aldera (629 metro) joanen dira eta

ondotik, Angos lepoan ibilbideko hirugarren kontrol puntua aurkitu-

ko dute, 1.160 metro-tan. Handik berriz Almandoz herrira joanen dira.

IZEN-EMATEA

Mendi itzuliaren eguna baino lehen, Internetez eman daiteke izena www.mendizmendi.com web orrian. Maiatzaren 24ra arte egin daiteke, zortzi euro ordainduta. Horrez gain, info@baztangoizaleak.org helbidera idatzita edo 680 456867 telefonora deituta ere apunta daiteke.

Ibilbidea 07:00etatik 07:30era abiatuko da.

ATLETISMOA → APIRILAREN 27AN BURUTU ZEN AURRERAK ANTOLATUTAKO LASTERKETAREN 35. EDIZIOA

147 korrikalarik aurre egin zioten hotzari Leitzako herri krosean

TTIPI-TTAPA

147 korrikalarik aurre egin zioten eguraldi hotzari apirilaren 27an burutu zen Leitzako Herri Krosaren 35. edizioan. Arraizako Raul Amatriain izan zen irabazlea gizonekoetan, hamar kilometroko ibilbidea 31 minutu eta 23 segundutan egin ondotik. Emakumezkoetan, Itziar Goñi irundarra nagusitu zen, 5 kilometroak 19 minutu eta 36 segundutan eginez.

Bi irabazleek bakarrik egin zuten ibilbiderik gehiena. Amatriainekin batera, Zizur Nagusiko Javier Nagorek (31:38)



ARGAZKIA: PABLO FEO

Alberto Barberena, Raul Amatriain eta Javier Nagore podiumean.

eta Elizondoko Alberto Barberenak (32:26) osatu zuten gizoneko seniorren podiuma. Emakumezkoetan, Itziar Goñiren atzetik Zizur Nagusiko Marta Muñoz (20:04) eta Lekunberri-

ko Olatz Gonzalez (20:57) sailkatu ziren. Irabazleek 200 euroko saria eskuratu zuten, bi-

garrenek 140 euro, hirugarrenek 80 euro eta laugarrenek 50 euro. Andrez Perezen marka (29:49) urrun gelditu zen eta inork ez zuen eskuratu errekorra hobetzeagatik Aurrerak jarritako 150 euroak.

Leitzako korrikalariei dagokienez, Fernando Irazoki gizonekoetan eta Izaskun Bereau emakumezkoetan izan ziren bizkorrenak. Ohitakari eutsiz, seiko taldeak osatzen zituzten leitzarrek bildotsa eraman zuten. Aurrerak ezarritako baldintzak lau taldek bete zituzten eta lauek eraman zuten bildotsa.

maiatzak 16 - 30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Bestak



BERROETA | 2013.05.18

Aurten ere Patagoniatik Mendekoste bestetara

ETB2ko *El conquistador del fin del mundo* saioko lehiakideak berriz ere Berroetan bilduko dira. Mikel Goñi eta Manu Maritxalaren taldeak lehian ariko dira.

Ospakizunak



ETXALAR | 2013.05.18

Euskal Herriko hainbat tokitako txistularien topaketa

Txistulari Eguna eginen da Etxalarren larunbatean, eta Euskal Herriko hainbat tokitako txistulariak bilduko dira. 10:00etatik aitzinera hasiko dira ekitaldiak.

Zinema



LEITZA | 2013.05.20

'Emakume baseritarren begiradak' erakusketa ikusgai

Maiatzaren 15etik ekainaren 8ra eginen den Kultur Aroaren barne, maiatzaren 20tik aurrera emakume baseritarrei eskainitako argazki erakusketa ikusgai udaletxean.

maiatzaren 24an
20:00etan kiroledegian.

'Banka etikoa eta alternatiboa' hizpide

Maiatzaren 16an Mikel Ortigosarekin hitzaldia, 20:00etan Aurreran.

Auzolana hizpide

Maiatzaren 22an auzolanari buruz hitzaldia Jasone Mitxelorenarekin, Aurreran (20:00).

Elikadura subiranotasunaz

Maiatzaren 21ean elikadura subiranotasunaz Ainara Urrizarekin, 20:00etan Aurreran.

Mahai ingurua

Maiatzaren 23an *Independentzia, Nafarrorik gabe?* mahai ingurua 20:00etan Aurreran.

Antzerkiak

BERA

'La felicidad de estar enfermo'

Maiatzaren 25ean Ezezagunok Antzerki Elkartearekin antzerkia Kultur Etxean (20:00).

Mugaz gain jaialdia

Maiatzaren 16an eta 17an DBHkoen saioa eta **maiatzaren 23an eta 24an** Lehen Hezkuntzakoak.

Berria egunkariaren 10. urteurrenaren harira

Maiatzaren 18an *Zertarako hegoak* antzez-lana Kultur Etxean, 20:00etan.

LEITZA

'Pottoka' antzez-lana

Maiatzaren 19an *Pottoka* antzez-lana 19:00etan zinemaren.

ZUBIETA

Rap-a eta antzerkia

Maiatzaren 24an *El rapero casero* Herriko Ostatuan, 22:00etan.

Erakusketak

OIZ

Iciar Mikelperizenaren lanak Martiornian

Iciar Mikelperizenaren lanak ikusgai Martiornia landa-etxean.

LEITZA

'Emakume baseritarren begiradak'

Maiatzaren 20etik aurrera izen hori duen erakusketa udaletxean.

Kontzertuak

BERA

Musika Eskolako entzunaldiak

Maiatzaren 20an trixixa-akordeoi entzunaldia (18:00).
Maiatzaren 21ean haizezko instrumentuen entzunaldia (17:30).
Maiatzaren 22an txistu entzunaldia (18:30).
Maiatzaren 23an gitara entzunaldia (17:30).
Maiatzaren 28an piano entzunaldia (17:30).
Maiatzaren 29an perkusioak (18:00).

Bera Kantari

Maiatzaren 25ean Bera kantari, Illekuetako zubian, 19:00etan.

Instituetako ikasleen kontzertua

Maiatzaren 22an Toki Ona, Mendillorri eta Zizurko instituetako ikasleen kontzertua Eztegarra frontoian, 17:00etan.

LEITZA

Musika Eskolako ikasleen emanaldia

Maiatzaren 17an zine-man, 19:00etan.

ZUBIETA

Rock bertsoak

Maiatzaren 17an Kon

dos bemoles taldearen kontzertua Herriko Ostatuan, 22:00etan.

Solasaldiak

LESACA

Gurasoentzat hitzaldia

Maiatzaren 18an *Nola jokatu kaskarraldietan haurrei begirunea erakutsiz. Zigorrik gabe hezteko alternatibak* solasaldia Lesakako Udalaren erabilera antzeko aretoan, 10:30etik 12:30era. Besarkada, Bortzirietako haziera elkarteak antolatuta. Izen-ematea: 646

373936 telefonoan edo noplusmas@hotmail.com helbidean.

ELIZONDO

EHPalestina Egunean

Maiatzaren 18an *Inperialismoa, Sionismoa eta Apartheida* Palestinan hitzaldia James Petras eta Adel Abou Salemekin, 11:00etan.

LEITZA

Entrenamendu mentalaren saioak

Maiatzaren 23an eta 24an Amazabal institutuan, 09:30ean. Eta

PROPOSAMENA

ERATSUN

Malerrekako Egunaren bigarren edizioa

Eratsunek hartuko du Malerrekako Egunaren lekukoa, hilaren 25ean. Hainbat ekitaldi izanen dira: harrera ekitaldia, musikariak, dantzariak, artisauek, pilotaren inguruko erakusketa, opil-jatea, buruhandiak, aizkora apustua, paella jatea, muxikoak, ume eta gazteendko tailerrak eta jokoak, mus txapelketaren finala, bertso-pilota, zozketa, joaldunak, afaria eta musika.



Filmak

ZUBIETA

'Bertsolari' filma

Maiatzaren 31n

Bertsolari filma Herriko Ostatuan, 22:00etan.

Ospakizunak

ERATSUN

Malerreka Eguna

Maiatzaren 25ean

II. Malerrekako Eguna.

ELIZONDO

Euskal Herria Palestina Eguna

Maiatzaren 18an palestinarrei elkartasuna adierazteko eguna.

DONEZTEBE

Gazte Burrenba Eguna

Maiatzaren 18an.

LEITZA

Atekabeltz Eguna

Maiatzaren 25ean egun osoko besta.

Eskulangintza azoka

Maiatzaren 26an

XXXV. Eskulangintza Azoka 11:00etan.

ETXALAR

Txistulari Eguna

Maiatzaren 18an

Euskal Herriko txistularien topaketa.

SUNBILLA

Asteburu kulturala

Maiatzaren 17tik 19ra

hainbat ekitaldi.

Artisau feria

Maiatzaren 19an

artisau azoka.

AZKAINA


Futbol txapelketa, bazkaria eta musika

Maiatzaren 18an

Azkaineko Herrirak eta Gazte Dinamika berriko kideek antolatuta: goizean futbol txapelketa, gero bazkaria, gauz kontzertuak Noxbleed

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Martutene

RAMON SAIZARBITORIA

Erein, 2012

Bortz pertsonaia nagusi ditu *Martutene* eleberriak. Julia, Martin, Pilar eta Abaitua dira lau kantoietako puntuak; erdikoa, Lynn. Julia itzultzailea da, Martin, idazlea eta Pilar eta Abaitua medikuak. Berriro osatzeko (edo desegiteko) prozesuan dauden bi bikote. Horretan, neska amerikar bat agertzen da haien bizitzan; soziologoa da. Lynnek ez du nahi, baina aspalditik lokartuak zeuden harreman haien zimenduak astinduko dituzten erreakzioak abiaraziko ditu haiengan: alaitasuna, desira eta bizi berri bati ekiteko poza eta ilusioa. Erreferentzia gisa, Max Frischen eleberririk bat hartu du, non asteburu bat eta azken maitasun-istorio bat kontatzeko bere bizitzaren errepasoa egiten duen egileak. Saizarbitoriak ere atzera begiratzen du, bere paisaiak gogoratu, aro baten amaiera, zorionekoa, indarkeriaren azkenarekin batera etorri delako, baina gauza gehiegi utzi dituen atzean... Saizarbitoriaren eleberririk onena dela erran izan da, eta lan honengatik jasoko du 2012ko 111 Akademiaren Saria.

Musika




Agur eta ohore kamarada

KALAPITE

2013

Lau urteko geldialdi behartuaren ondotik, Kalapite taldea berriz ere elkartu da bere ibilbideari bukaera duin bat emateko asmoz eta diska berria aurkeztu digu, agur moduan: *Agur eta ohore kamarada*. Honez gain, apirilean bere azken bi kontzertuak ere eman ditu Elizondoko Gaztetxean eta Erratzuko Zubi Punta Ostatuan. Bigarren eta azken diska hau, lehenaren ildotik, punk eta ska arteko zazpi kantuz osatua dago. Kanta guztiak 2006 eta 2008 urteen artekoak dira, hau da, geldialdiaren aitzinekoak baina 2012ko udan zehar grabatuak izan dira Xabi Ospitalen eskutik eta Iñigo Kamposek masterizatu ditu. Azken kontzertua eman arren, diska oraindik ere eskualdeko hainbat ostatutan eskura daiteke 5 euroren truke. Diskaren salmentatik ateratako irabaziak errepresioak Baztanen utzi dituen ondorio ekonomioei aurre egiteko erabiliko dira.

Internet



Arkupeak elkartearen webgunea

WWW.ARKUPEAK.COM

Interneteko atari hornitua paratu du martxan Arkupeak Jubilatuen Elkartek: www.arkupeak.com. Bazkideek zein edozein erabiltzailek momentu oro informazioa eskura izan dezaten egin dute webgunea, eta hainbat ataletan banatu dute: aurkezpena (elkartea nork osatzen duten azalduz), harremanetan jartzeko bideak, herrietako ordezkarien izenak eta telefonoak, helburuak, estatutuak (berriak eta 2012ko abenduaren 19an onartuak), boletinak (etxeetara bidalitakoak eta martxan daude), jarduerak (bertzeak bertze, ateraldi, hitzaldi eta mendi irteeren berri emanez), argazki galeria (egindako bidaien eta ikusitako lekuen argazkiekin) eta memoria. Zuzendaritza Batzordetik iragarri dutenez, kexak, iradokizunak edo galderak egiteko sail bat ere sortu nahi dute, bazkideek sare sozialetan ere parte har dezaten.

eta Magerekin.

ITUREN

Trinitate Eguna

Maiatzaren 26an Trinitate Eguna ospatuko da Mendaurren.

ESKUALDEA

Plazara ekimena

Maiatzaren 18an euskal presoen alde Plazara ekimena herriz herri.

Bestak

BERROETA

Mendekoste bestak

Maiatzaren 17tik 20ra.

ALMANDOZ

Bestaberri bestak

Maiatzaren 29tik

ekainaren 2ra.

Mendi ateraldiak

BERA

XI. Berako Mendi Itzulia

Maiatzaren 19an

XI. Berako Mendi Itzulia.

ALMANDOZ

Baztango XX. Itzulia

Maiatzaren 26an

Baztango XX. Mendi Itzulia.

BAZTAN

Arkupeak-en ateraldia

Maiatzaren 23an

Saioara irteera, 09:00etan Ultzamako Bente-tatik abiatuta.

ARANTZA

Goizuetara ateraldia

Maiatzaren 25ean

Arantzatik Goizuetara mendi irteera.

ZUGARRAMURDI

Mendaurrea irteera

Maiatzaren 26an

Sunbilla-Mendaurren mendi ibilaldia.

LEITZA

Okabiotik Leitza

Maiatzaren 18an Okabio-Areso-Leitza ibilaldia, 09:00etan abiatuta.

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobilizatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

IRUN. Etxebizitza salgai, Erromes plazan. Bi logela ditu. Eskaintza bikaina! ☎ 617 461649.

DONEZTEBE. Bilogelako etxebizitza berritua salgai. 15 m²ko trastelekuarekin. Prezioa: 105.000 euro. ☎ 630 160353.



ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎ 943 217817.

NARBARTE. Pisua eta 65 m²ko bajera salgai. 3

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

logela, sukaldea, egongela, bainugela, trastelekua eta terraza oso eguzkitsua ditu. Prezioa: 20 milioi pezeta, negoziagarriak dira. ☎ 671 953370.


DONEZTEBE. Pisua salgai Parroki kalean. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena mobilizatua eta igogailuarekin. Deitu ☎ 665 709848.

SUNBILLA
ERAIKIN BERRIA
Pisua • Garajea
Trastelekua
120.000€ hasita
T.F.: 948 10 98 18
607 94 67 85

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

SUNBILLA. Pisua errentan emateko edo salgai.

Bi logela, sukaldea eta egongela tximiniarekin. Dena hornitua, kalerazio zentrala, balkoia, terraza, igogailua, garajea marra eta bi trasteleku etxeko goiko solairuan. Kalitateko eraikin berria eta aukera askokoa. Prezio onean. ☎ 628 473539.



ALMUÑECAR. Abuztuko bigarren eta iraileko lehenengo hamabostaldietarako apartamentua errentan emateko. Hondartza ondoan, igerilekuak, bista ederrak, klimatizatua eta ongi ekipatua. ☎ 658 943702.

BERA. Eztegarra pasea-

lekuan pisua errentan emateko. Mobilizatua. ☎ 677 592133.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

ESKUALDEA. Emakumezko batek etxebizitza edo pisu bat errentan hartu nahiko luke Bortziriak, Baztan edo Malerreka inguruan. ☎ 647 233690.

LESAKA-BIDASOA. Pisua edo etxe tiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. Interesatuak mesedez deitu arratsaldeko 16:00etatik aitzineira. ☎ 636 777478.

Baserri txiki / borda bat erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 628 090498.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

DONEZTEBE. 200 m²ko

bajera errentan emateko. ☎ 608 978210.

LEITZA. Elgoien 19an, bajera errentan emateko. Denda jartzeko prestatua. 60 m². ☎ 948 510167.

LANA

eskariak

ARIZKUN. Arkitekturako ikasle bat naiz, eta asteburuetan Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergo mailako **klase partikularrik** emateko prest nago. ☎ 680 187344.

Industria eta nekazaritza arloetako ezagutzak dituen mutil gaztea lan bila ari da. ☎ 639 046703.

Neska gaztea eskaintzen da **haurrak zaindu** edo **zerbitzari** lanetan aritzeko, Elizondo eta inguruko herrietan. ☎ 619 807760.

ESKUALDEAN. Gizonetako iturgin, elektrizitate... lantxoak egiteko prest dago. Ardi ilea mozteko ere bai. ☎ 651 881863.

Neska gazte euskalduna lan egiteko prest dago. ☎ 948 637182.

LANA

eskaintzak

BERA. Ostatu batean sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 948 630259.

URDAZUBI. Ostatu batean sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 948 599021.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Apirilaren 26tik maiatzaren 3ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 53 € (=)

Zerri gizena
1,370 € kilo. (-0,007)

Zerramak:
0,800€ Kg/bizirik. (-0,055)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,28
1.koa 4,02
2.koa 3,87

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,06
2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00
idixkoak 165,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,90/6,00
8-10 kilokoak: 4,60/5,30

MOTORRAK

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 67.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

Renault Megane 1.6 gasolina salgai. 1997 urtekoa. ITV eta zirkulazio tasa ordainduak ditu. Egoera onean dago. Prezioa: 700 euro. ☎648 289710.



Seat Leon Sport 130 cv salgai, 2005ekoa, egoera bikainean. ☎699 375 558.



MOTORRAK

tailerrak



ANIMALIAK

salerosketak

Spaniel Breton arrazako **zakurkumeak** salgai. 2 eme eta ar bat, bi hilabeteak. ☎677 592133.



Ahuntz enano gazteak salgai. Prezio onean. ☎618 778328.



DONAMARIAKO UDALA

Herriko Ostatuaren alokairua

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez Donamariako Herriko Ostata errentan ematea. Lehiaketa, bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena:** 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
- Hilabeteko errenta:** 300 euro/hilabetea gehi BEZA.
- Lehiaketan,** bideragarritasun plana, eskarmentua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Behin-behineko fidantza:** 300,00 euro.
- Eskaintzak aurkezteko epea:** 2013ko maiatzaren 24a arte, 14:00etan. Eskaintzak Donamariako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agirian adierazten den gisara.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen esku-
ra dago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidal-
iz helbide honetara udala@donamaria.es eta 948-450046 telefo-
nora deituz (astelehena eta ortzirala 12-15etara, eta asteazkene-
tan 8-15etara).

Donamarian, 2013ko maiatzaren 3an
Alkatea, Mikel Arregi Mingegia

DENETARIK

zerbitzuak

**Diana Iniesta psikolo-
goaren** kontsulta Erra-
tzun, etxez-etxe edo In-
ternet bidez. Interesatuak
deitu 948 453478 telefo-
nora edo idatzi [diana
iniesta@hotmail.com](mailto:diana.iniesta@hotmail.com) hel-
bidera.

BAZTAN, MALERREKA
eta **BORTZIRIAK**. Egur
loteak egin, materialeta-
rako arbolak bota eta ate-
ratzen dira, prezio oso
onean. ☎600 789034.



DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287/ ☎699
461394.



DONEZTEBEKO UDALA

Ostatu-jatetxetako lokalen errentamendua

Doneztebe Udalak, 2013ko martxoaren 20an egin osoko bil-
kuran, erabaki zuen deialdi publikoa egitea Udalak Santa Lucia
karrikako 5.eko behegian dituen lokalak ostatu-jatetxetako erren-
tan emateko, bertzeak bertze baldintza hauei loturik:

- Errentamenduaren iraupena:** urte 1, bertze 3 urtez luzagarri.
- Hilabeteko errenta:** 620,00 euro gehi BEZ. Horixe izanena da hasierako prezioa.
- Lehiaketan,** ustiapen proiektua eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Eskaintzak aurkezteko epea:** Eskaintzak Doneztebe Uda-
leko Idazkaritzan aurkeztu behar dira, iragarki hau Nafarroako
Aldizkari Ofizialean argitaratu (2013.05.03) ondoko hamabortz
egun baldiodunean, horretarako onetsi den baldintza-agirian adie-
razten den gisan.
- Behin-behineko fidantza:** 1.000,00 euro.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen esku-
ra dago Udal Idazkaritzan.

Donezteben, 2013ko apirilaren 17an
Alkatea, Miguel San Miguel Azpiroz

Epson SX125 markako
inpresora salgai. Inpre-
sora, eskaner eta fotoko-
piadora funtzioak bete-
tzen ditu. Erabili gabea.
Prezioa 50 euro. ☎627
395245.

ORONOZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta ha-
ritza. Etxera eramaten da.
☎676 242520.



Rational markako **labea**
salgai. 6 bandejakoa.
Egoera oso onean. ☎617
461649.

EZKURRA. Alkaziazko
piketeak salgai. ☎600
699266.

Lau ahotseko **trikitixa**
erosiko nuke. Si bemo-
len dagoena. ☎948
637327.

Lau ahotseko Zero Sette
Antiko markako sol-do
trikitixa erosiko nuke.
☎948 637327.

New Holland markako
enpakadora salgai.
☎660 251884.

DENETARIK

galdu/aurkituak

BERA. Trenbidean, ha-
rrobiaren ondoan, giltza
multzoa aurkitu da, ga-
rajeko giltza bat barne.
☎650 162372.

maiatzeko
zk. saritua
7.432

Zonaldeko
produktuekin
osatutako lotea

Sarituen hilaren
31 baino lehen
deitu behar du
Bortziritako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatera

948 63 52 54

← hemen
agertu nahi duzu?

egin zure erosketa
www.ttipi.net en

IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten hilabete batez

8
EURO

urtebetetzeak

Argazki soil: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



ANE TELLETXEA
IRAOLAK maiatzaren 4an 7 urte bete ditu. Muxu handi bat familiaren eta bereziki Markel eta Aimar anaien partetik.




EKAITZ SEIN ARIZTEGI eta **ENERITZ ETXEPARE SEIN** lehengusuek 2 urte eta urte bat bete dituzte maiatzaren 10 eta 14an. Auniz urtez eta muxu potolo bana familia guztiaren partetik!



Zorionak ETXAHUN! Maiatzaren 2an 3 urte bete ditu eta muxu auniz Bekeorrotako familiaren partetik.



Zorionak ETXAHUN osaba Josetxoren partetik! Muxu auniz.



IBAK maiatzaren 28an urtea beteko du. Auniz urtez gure morroxoari eta mila muxu potolo!



Goizuetako IZARO SALDIAS MAKAZAGAK maiatzaren 14an urtea bete du. Zorionak printzesa zure familia guztiaren partetik. Eta muxu potolo bat Lorearen partetik.




Auniz urtez! Le-gasako **HEGOI ANDRESEN** **GRAJIRENAK** 5 urte bete ditu maiatzaren 9an. Muxu bat ebekoen partetik eta besarkada Narorearen partetik.




Sunbillako PAUL IRAZOKIK maiatzaren 19an urteak beteko ditu. Zorionak aitaxo! Eta muxu erraldoi bat Alizia eta bereziki zure semetxo Pabloren partetik.



Urdazubiko ASUNZION OLAGARAIK 92 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak auniz amaxo! Eta muxu handi bat Pablo eta familia guztiaren partetik.



Etzalarko IRATI MENDIBURU GALARREGI gure nikkak maiatzaren 28an 3 urte beteko ditu! Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



MATTIN urrozta-rrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 18an. Zorionak Ardora jatetxeko lagunen partetik.



Arraiozko NAROA GAMIO LAURNAGARAIK maiatzaren 15ean 6 urte beteko ditu. Auniz urtez eta muxu handi bat familiaren partetik eta bereziki Olaiaren partetik.



Bi nexka polit hauek Berako NAROA TELLETXEA eta **GARAZI IRIARTE** dira. 7 eta 2 urte beteko dituzte maiatzaren 17an eta 19an. Zorionak familiaren partetik. Muxu potolo bana!



Lesakako XUBAN GOÑI ALMANDOZEK 2 urte bete ditu maiatzaren 10ean. Muxu bat ata, ama eta Lesaka eta Sunbillako familiaren partetik.



IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK maiatzaren 19an 8 urte beteko ditu. Zorionak etxeko partetik eta bereziki Oier eta Izaroaren partetik. Gora Euskaltel-Euskadi! Aupa Gorka Izagirre!



Lesakako EKINE SALGADO SOLO eta **JANIRE OTXANDORENA** MITXELANAK 7 urte beteko dituzte maiatzaren 14an eta 20an. Zorionak denon partetik bikote. Aupa dantzariak!



Ornozko MAIALEN BARAIBAR GORTARIK 9 urte beteko ditu maiatzaren 27an. Muxu erraldoia gure nexka politari, ata, ama eta bereziki Aitor bihurriaren partetik. Zorionak printzesa!

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soil 4 EURO

aldizkarian interneten 8 EURO

TTIPI TXARTELA harpidetza baino merkeagoa da!

TTIPI-TTAPA aldizkaria doan (24 aldizkari urtean)

ZOKETAK hamabostero (sarrerak, kamisetak, diskak, liburuak, ofortuak...)

DESKONTUAK 40 komertzioetan (tailerrak, dendak, optikak, kiroldegia, jatetxeak...)

40€ - 10€ = 30€

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 34€ baino du TTIPI TXARTELA duzuenek. 30€ pagatuko duzue urtean. Errentaren Aitorpenarekin 10 euro azalduz baltzaie

Informazio gehiago: **ttipi-ttapa**
Koskontako bidea, 7-1
31770 LESAKA
Tel: 948 635 458
info@ttipi.net
www.ttipi.net

deSKONTUAK
AUTO: TALENARRAK | Berratu | Dabuztey | Sarsilena | Zakan Motor; **AUTO ESKOLAK**: Sempé; **ARGAZKI-DENDAK**: Góico | Mora | Zabala; **ARROPI-DENDAK**: Buxio | Edurne | Fariñeira; **ESTETIKA ZENTRUAK**: Amara | Arriola; **ETXETRESNAK**: Altzur; **FOTOK**: INPRENTA: Bortolandi; **HAUPURRIEN GALUZEN DENDAK**: Purrak; **JATETXEA**: Pasaide Oito | Etxebarria; **KIROLDEGIAK**: Giltzaurdi | Lesakako Udal Kiroldegia; **KIROL-DENDAK**: Agnara | Izurte | Zela; **LENTZENARRAK**: Katalapina | Marmita; **LIBURU-DENDAK**: Nafarrea; **MARMOL**; **NUTRIZIOA eta DIETETIKAK**: Oñena | Kimitz | Elka; **OPARI-DENDAK**: Alustiza; **OPTIKAK**: Irizar | Oñena; **PENTSUAK**: Mendieta; **TINDATUEGIAK**: Jatorre; **TTIPI-TTAPA ZARPIA-DENDAK**: Oñena | Teneika | Zangra.



Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazten da

2013ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

2013ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak	77,50 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	152,30 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	232,20 €	
1. Ostatura. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	154,80 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Ostatura. 30m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak	309,90 €	
3. Ostatura. Pub eta diskotekak	387,00 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkartea gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	387,00 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	696,90 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Landetxeak.	155,30 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	132,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	108,70 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	541,70 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	774,00 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	386,50 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	774,00 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.161,10 €	
Lantegiak, lau langile bitarte	77,50 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	154,80 €	2012ko tasa berak 2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	387,00 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	774,00 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.161,10 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.200,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.242,90 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	752,20 €	

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2013ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2013ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2013ko apirilaren 1a
Presidentea,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

ttipi txartela

TTIPI-TTAPA

PNII IRIARTEA IGARTZA
72675303-Q
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZÖZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

informazio gehiago: **telefonoan**
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax. 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUAK

ZALAIN MOTOR



BERA | %5 errekanbioetan

edurne
arropadenda

BERA
%5, 30etik gorako gastuan

KATEA-BIKE

BERA | %5 konponketetan



Urdi Lesaka

LESAKA | Pertsona 1: %10 matrikula 2 pertso-
ra; 1 go pertsonak matrikula doan, 2. pertsonak
habele bat doan, (abuztuak 31 arte)

MAIMUR

LEITZA
%10 oparitzeko artikuluetan



Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arana, Antzuola

DONEZTEBE
%5 zakur eta katuen pentsuari

zozKetak

589 ALEKO IRABAZLEAK

- 1- BOLTSO BAT | Oninart
Rosa Mª Indaburu | **BERA**
- 2- ARKUPE LOTEA
Karmelo Migelena | **IGANTZI**
- 3- 2 SARRERA | Sorginen lezea
Nekane Inbuluzketa | **ELIZONDO**
- 4- 2 LIBURU | Elkar argitaletxea
Ezeiel nora ezeean | Isabel Sanzberro | **ETXALAR**
Izu-izua | Mª Jose Golkoetxek | **IRURITA**
- 5- 2 SARRERA | Lesakako Udal kiroldegia
Mª Asun Olagarai | **ETXALAR**
- 6- 2 SARRERA | Aquarium
Mikel Olaetxea | **LESAKA**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



MARTIKO LOTEA
www.martiko.com



PIRATAK JOLASA
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.org



3 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
www.ttartalo.com



2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com

